



ARGIA



KATAKRAK, 10 URTEKO IBILBIDEA

Erresistentzia eta ametsen habia

26-31. orrialdeak

#2838 | 2023/09/17 | 4,00 €



Zabor erradioaktiboek gaina harturik

12 | FUKUSHIMA



"Aulkiak ez digu bitzita proiektua eragozten"

16 | LEXURI BADIOLA




Laguntza nahikoa dute premia berezidun ikasleek?

32 | HEZKUNTZA

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN #288

HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



AFRIKA

EGUNGO GATAZKEN SUSTRAI KOLONIALAK

ARGIA.EUS/LARRUN

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


 AZALEKO ARGAZKIA: **DANI BLANCO**

Iritziak

- 21 | MIKEL ZURBANO
- 22 | TERE MALDONADO
- 23 | KIMETZ ARANA
- 23 | CASTILLO SUÁREZ
- 24 | IÑAKI BARCENA

Finkoak

- 39 | BIZI BARATZEA
- 42 | ARGIA KOMUNITATEA
- 43 | DENBORAREN MAKINA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:
UXUE BEREZIARTUA
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

 SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**


SHU OTERO

32 | PREMIA BEREZIKO IKASLEENTZAT BALIABIDEAK URRI?

Mikel Garciak landutako erreportajeaz azaldu du izugarri hazi dela premia bereziak dituzten ikasleen kopurua. Aldiz, Pedagogia Terapeutikoko irakasle espezializatu gehiago jarri beharrean, gero eta gehiago tutorengain uzten ari da lan hau Jaurlaritza.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Fukushima: istripua iraganean, kalteak bizi-bizirik eta soluzioak oraindik aurkitzeke

Jenofa Berhokoirigoin

16 | PERTSONAIA | LEXURI BADIOLA

“Aulkian egoteak ez dizu eragozten zure bizi-proiektua aurrera eroatea”

Danele Sarriugarte

26 | GIZARTEA

Iruñeko Katakrakek 10 urte

Xabier Letona

36 | INGURUMENA | PIROCENOA

Su Aroan murgiltzen ari gara

Víctor Resco de Dios

44 | KULTURA

Mañariako grisa

Jone Alaitz Uriarte

46 | KULTURA

Beste munduko margolanak

Jule Azpitarte

Jabetza

Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

Amaitz Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano, Irati Irazusta, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Manex Moreno, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandiandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

 komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

 Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:



Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuontzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA





ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Euskal bullying-a

Zezena ardatz duten 1.761 ekitaldi egin ziren Hego Euskal Herrian 2019an, AnimaNaturalis eta CAS International elkarten zenbaketaren arabera. Hego Euskal Herriko herrien laurdenean uztartu zituzten tratu txarra eta festa, diru publikoak sustatuta. Urtetik urtera, gero eta zabalagoak diren kritiken aurrean, "500 urte baino gehiago dituen euskal ohitura babestu" behar dela dio beste bizidun bati soka lepoan jarrita jaiez gozatu nahi duenak. "Gure ohiturekiko errespetua" eskatzen du erabaki-ahalmenik ez duenarekiko indarkeria betikotu nahi duenak. Ustezko tradizioen atzean gotortzea aukera manatua baita eztabaida bera ukatu nahi duenarentzat, Hondarribia eta Irunen galdetu bestela.

 AITOR GARMENDIA  AXIER LOPEZ





GU
ki



Euskarazko ikus-entzunezkoen eskaintza zabala bermatzeko eskatu diote Jaurlaritzari

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Aldatu gidoia euskararen alde! ekimenen 31 eragile batu dira, eta kritikatu dute Eusko Jaurlaritzak EITBn euskara eta euskarazko telebista eta irratiak bigarren mailan utzi izana. Euskarazko ikus-entzunezko edukiak, EITBz gain, bestelako euskarri guztietan egoteko lan egin dezala eskatu diote. *Aldatu gidoia!* kanpainak mobilizazioa iragarri du 2024ko maiatzaren 18rako.

Aldatu gidoia! ekimenak aurkezpen ekitaldia egin zuen irailaren 9an. Kultura, euskalgintza, sindikalgintza eta hezkuntzako 31 eragilek abiarazi dute kanpaina. Helburua masa sendoa artikulatzea da, euskara eta euskarazko kultura erdigunean jarriko duten politiken alde. Bide horretan antolatu dute hurrengo maiatzerako mobilizazioa Gasteizen, Eusko Jaurlaritzaren Lakuako egoitzaren aurrean. Change.org plataforman sinadura bilketa ere hasia dute.

Ekimeneko kideek, bestalde, Eusko Jaurlaritzarekin eta alderdi politikoekin biltzeko asmoa agertu dute, 2024ko politiketan eta aurrekontuetan haien

Haien ustez, EITBk sorrerako helburua baztertu du eta gaztelerazko programek eta edukiek lehentasuna dute gaur egun

eskariak aintzat hartu ditzaten.

Irailaren 9an egindako agerraldian, ekimeneko kideek kezka agertu zuten, Eusko Jaurlaritzak ez duelako euskarazko kulturaren eta euskarazko ikus-entzunezkoen alde behar beste egiten. Haien ustez, EITBk sorrerako helburua baztertu du eta gaztelerazko programek eta edukiek lehentasuna dute gaur egun. Euskara eta euskarazko telebista eta irratiak bazterrean geratu dira eta baliabide gutxi jasotzen dute.

Euskal telebista indartsua izatea hizkuntzarentzat estrategikotzat jo dute

eta azpimarratu dute EITBri dagokiola herritar guztiei euskararen sarbide unibertsala bermatzea. Euskara hizkuntza nagusia izango duen EITB sendoa aldarrikatu dute.

EITBz harago, *Aldatu gidoia!* ekimeneko eledunek eskaera zabalagoa egin dute. Premiazkotzat dute Eusko Jaurlaritzak ikus-entzunezkoen egoerari eta jendartearen kontsumo ohiturei arreta jartzea, era berean estrategiak eguneratzea, eta euskararen aldeko politikak abiatzea, beti ere EITBz harago. Euskarazko edukiak euskarri guztietan, telebistan, zineman, streaming plataformetan eta gainerakoetan egoteko lan egiteko eskatu diete erakunde publikoei. Onartezintzat dute euskara, euskarazko fikzioa eta bikoizketa baztertzea audientzia eta kontsumoa aitzakiatzat hartuta.

Euskarazko ikus-entzunezkoen eskaintza zabal, duin, eguneratu eta erakargarria osatzeko eskatu dute.

Eskakizun zehatzak zazpi multzotan bildu dituzte:

- Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren aurrekontuetan urteko %5 euskarazko ikus-entzunezkoetara bideratzea. Biztanleko urtean 9 euro.

- EITBk Euskal Herri osorako jardutea.

- Diru publikoz finantzatutako euskarazko bikoizketa-azpidatzi guztiak egokitu eta plataformetara helaraztea, Espainiar Estatuko legeak agintzen duen bezala.

- Inklusioaren eta hizkuntza normalizazioaren ikuspegitik azpidatzen erabilera politika diseinatu eta erabilera orokortzea.

- Zinema eta plataformetako euskarazko estreinaldiak iraunkorki promozionatzea.

- EITBn euskarazko kulturari eta euskal sortzaileei lehentasunezko tokia egitea.

- Bideojokoaren industriako ehun asoziatiboarekin eta enpresarialarekin harremanak sortzea eta lan egitea. ●



MITXEL ELORTZA

MATERIALISMO HISTERIKOA

EZ HANKA EZ BURU

Geroztik



UXUE APAOLAZA LARREA

Urte bat eta zazpi hilabete pasa dira 2022ko otsailaren 28tik. Ikasturtearen erdialdea pasata, gabonak ere bai, beroki, jertse eta barruko kamiseta, zailtasunak izango zenituen garbi jantzita joatea, garbigailuen maiztasuna, arropa zintzilikatu, jaso (plantxatu ez), plegatu eta jasotzea uztartzeko. Hotza? Prozesionaria ilararen bat.

Maitemindu zara geroztik? Errutina goxoan bizi zara? Baduzu laztantzeko txakur bat? Laztantzen zaituen norbait? Laztandu zaituzte azken urte eta erdian?

Askotariko eguraldiak izan ditugu. Hotz egin du, epel, bero. Kexatu zara hotzaz, epelaz, beroaz. Euria ari duelako, egiten ez duelako.

Erabaki duzu ezin duzula aurtengoa bezalako beste uda bat pasa, belaunetik gorako galtza motzik gabe. Bitan baino gehiagotan pentsatu duzu "jo, ez daukat belaunetik gorako galtza motzik", eta erabaki duzu erostea, datorren urtea galtza motzekin hasteko?

Senideren bat gaixotu zaizu agian, baina dena ondo joan da, asmatu duzulako ondoan egoten. Seme-alabei ere gauzak gertatu zaizkie, baldin badituzu, eta erabakiak hartuko zenituen beraien hobe beharrez. Beharbada, oporretara joan zarete elkarrekin.

Liburu batzuk irakurri dituzu, akaso, baten bat idatzi ere bai; edo ikerketa proiektu bat hasi duzu; edo lana utzi duzu; edo RGIa eskatu duzu eta eman dizute. Lagun bat egin duzu, eta ez dakizu, baina bizi osorako da.

Hori guztia, gehiago (edo gutxiago) egin duzu. Pablo Gonzalezek ez du egin. Pablo Gonzalez bizitzatik atera dute. Gizon zuri bat. Eta ahal dute, probarik gabe. Ikasturtea hasi duzu, kezka eta beldurrez zamatuta, ilusioz ere bai: Pablo Gonzalezek ez. ●

BASQUE SPE CULINARY CENTER



Hezkuntza

"Borroka luze eta gogor baten ostean", garun-paralisia eta %87ko desgaitasun motorra duen Usurbilgo ikasleak jardunaldi osoko laguntzailea lortu du ikasturte honetarako. Joan den ikasturtean, laguntzailea jardunaldi erdira jarri zioten (ordura arte jardunaldi osora zuen), eta ezinezkoa zitzaion aurrera egitea.

Lurrikara

Marokon azken hamarkadetan izandako lurrikararik handienak gutxienez 2.100 hildako eragin ditu (irailaren 11n astekari hau ixteko unean). Irailaren 8an, Richter eskalan 6,9 graduko lurrikarak astindu zuen Maroko, eta ordutik larrialdi egoera bizitzen ari dira herritarrak. OMEren esanetan 300.000 lagun kaltetu ditu. Emakume bat hilda aurkitu dute.

Heriotza

Barakaldoko kutxazain automatiko batean. Ertzaintzaren arabera, gorpuak ez zuen indarkeria zantzurik. 42 urteko bilbotarra zen, baina maiz egoten zen Barakaldon eta ezaguna zen herrian. Uztailean etxerik gabeko emakumeentzako aterpetxea itxi zuten, Udalaren murrizketen ondorioz.

Abuztuko datu onei begira



AINHOA ETXAIDE
AMORRORTU

Abuztuan langabeen kopuruak gora egin arren, gobernu eta administrazioen hitzetan datuak ez dira txarrak, begirada luzatu eta urte osoko datuak kontuan hartuz gero. Akaso. Patronalak bat egin du azterketa horrekin. Baina behin begirada altxatzen hasita, beste zerbaite da ikusten duguna.

Aipamenik ez da egin gizarte segurantzaren datuei buruz. Gora egiten duenean ozen aldarrikatzen dute, baina nabarmen jaisten denean, ezkutatu egiten da datu hori. Espainiako Estatu osoa kontuan hartuz gero, 200.000 langiletik gora kanporatu dira lan merkatutik abuztuan, gehienak zerbitzuen sektorean, baina baita milako pare bat industrian ere. Enplegua suntsitu da, saio aldirako sortua kasu askotan, baina ez beti; eta beste behin, kanporatutako gehienak emakumeak dira. Lan merkatutik kanpo, langabeziari begiratu gero, ez dago egindako balorazio on horiek nondik justifikatu. Erdiak ez du prestaziorik jasotzen, epe luzeko multzoa ez da txikitu, aldizkako kontratuekin langabe daudenak ez dira zenbatzen... Luze jarrai genezake datuekin diskurtso ofizialak desmuntatzen, baina jakina den bezala, arrazoia izatea ez da nahikoa hori iraultzeko.

Lan merkatuak aspaldi utzi zion bizitza duina ziurtatzeari, eta gaur gaurkoz, aukera hori ez da eskaini ere egiten. Erosahalmena defendatzea, kontratu mugagabeak baldintza duinetan izatea... aldaketa horiek funtsezkoak dira, euskal sindikatuek lantoki lantoki borrokatzen jarraituko dute, iragarri dutenez. Baina argazkia benetan iraultzeko lan merkatua da aldatu behar dena. Hor dago jauzia. Arrazoia badugu, baita indarra ere, erabakiak burura eramateko tresnak dira behar ditugunak, 78an ukatutakoak, estatutuak beteta ere eskuratuko ez ditugunak. ●



Urrats txikietarako garaiak

XABIER LETONA BITERI

Espainiako egoera politikoari begira, pentsa daiteke hango alderdi nagusiek urteetan beharko dituztela periferia abertzaleen botoak Madrilen gobernuak eratzeko. Horrek eman dezake aukerarik Espainian plurinazionaltasunaren bueltan bestelako urratsik emateko? Testuinguru horretan dator Urkullu lehendakariaren konbentzio konstituzionalaren proposamena. Eta zer da? Funtsean, une hau baliatzea Espainiako Kongresuan gaiaz hitz egiteko eta 1978ko marko konstituzionala gainditzeko, alor ekonomikoan euskal lurretan dugun hitzarmen ekonomikoa esparru politikora ere eramanda.

Egiazki, nazio auziaren gainean azken bi hamarkadetan jeltzaleek egin duten proposamen epelena da. Bestelako testuinguru politikoetan askoz eskaintza boro-bilagoak plazaratu ohi dituzte: 2001ean Ibarretxe plana, 2006an Loiolako elkarrizketetan adostutakoa, 2008an Ibarretxeren kontsulta, 2014an Estatutua erreformatzeko proposamena, 2018an bilateralitasun politikoa...

Tira, oraingoa ezin da aipatutakoekin konparatu, baina Alderdi Egunaren atarian eta Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak ate joka, eskaintza herabeagorik ezin da plazaratu. Kontraste gisa, Kataluniatik amnistia, erreferenduma eta autodeterminazioa aipatzen dira PSOEko elkarrizketa horietarako. Euskal Herritik, aldiz, ia ontzat ematen da Sánchenezekiko akordioa, jakinik alternatiba askoz okerragoa dela.

Itxuraz, Kataluniako independentismoak, Juntsek bereziki, baliatu nahi du politikak eman dien abagune berezi hau, erbesteko kapituluak duintasunez eta indarrez ixteko, eta mugimendu independentista beste etapa batera eramateko. Ez da txantxetako lana, ikusi besterik ez *proces*-a altxatu zuen independentismoaren zatiketa egoera zein den.

Betor katalanek negoziatu nahi duten amnistia, Katalunian oraindik milaka pertsona dago errepresioaren mehatxupean eta. Hala ere, han ez dago inor espetxean. Euskal Herrian, ETAk armak utzi eta hamahiru urtera, oraindik 150 bat preso dira eta hogeit bat erbesterratu. Aurreko legealdia sakabanaketaren amaierarena izan bazen, aurtengoak beharko luke behin-behineko gehienak kaleratzearena. Mende erditik gora iraun du ETaren kapituluak Euskal Herrian, eta orrialde hori guztiz pasatu gabe dago. Horrek oraindik eragin handia izango du nazio auzia berriz konfrontazioaren esparrura eramateko. Ezker abertzalea estrategia instituzionalean dago, arrakastaz gainera, eta herri mugimenduan oraindik ez dago ekimen indartsurik bestelako bideak eraikitzeke.

Demokraziaren ikuspegitik beti litzateke ongi etorria Espainiako Estatuaren izaera plurinazionalan aurreratuko lukeen edozein konbentzio konstituzional, baina perspektiba historikoa duen edonork irudika dezake horretan ere ez dela aurrerapauso esanguratsurik emango mugimendu soberanisten gizarte bultzada handirik gabe. Akordioak gorai patuta, 1978ko trantsizio giroa aipatzen da sarri, baina ez horrenbeste orduan zegoen presio giro itzela. Orain, izatekotan, urrats txikietarako garaian gaude. ●

10.000

ikaslek eskola-garraio zerbitzurik gabe hasi dute ikasturtea Araba eta Bizkaian.

Eskola-garraio enpresak zerbitzua ematera behartu nahi izan ditu Eusko Jaurlaritzak, baina planto egin dute. Enpresek helegitea jarri dute.

%65

da emakumeen artean eten diren aldizkako kontratuak Hego Euskal Herrian, maiatzetik hona. LABek salatu du Espainiako Estatuko lan erreforma onartu zenetik aldizkako lan kontratua dela emakumeen artean nagusi.

7

salaketa egunean, indarkeria matxistari lotuta. Datu horiek utzi ditu uztailak Nafarroan; hilabeterik beltzena da salaketei dagokienez: guztira 205 salaketa.

“Gauzak aldatzen ez badira, greba egongo da”

JON AZKUNE TORRES

Espainiako unibertsitateen lege berria baliatuz EHU zuzenean ordezeko irakasleak kaltetzen ari dela salatu du EHUko Prekarioen Koordinadorako kidea.

ARGIA.EUS (2023-09-11)



“HEZKUNTZAN, EUSKARAREN ARLOAN EZINBESTEKO DA JAUZI BAT EGITEA ETORKIZUNeko ERRONKEI AURRE EGITEKO”

EUSKALGINTZAREN KONTSEILUA

2023-06-06

“Nor da Alarde Fundazioa, guztiona den ondarearen inguruan herri osoaren izenean hitz egiteko?”

OIHANA ETXEBARRIETA

Hondarribiko Jaizkibel konpainia parekideko kidea.

ARGIA.EUS (2023-09-06)



TEKNOLOGIA

Analfabetoak



DIANA FRANCO

Batzuentzat, teknologia da arazoaren konpontzaile bakarra, eta batzuetan bada. Baina teknologiaz bizitzeko arazo guztiak konponduko dituela pentsatuz, nire ustez, gizarteak onuragarriak ez diren zenbait ageritokitarara bideratzen gaitza.

Gauzak egiteko modu anitz dago munduan, ur berorik ez baduzu, ur hotza erabili dezakezu bainatzeko, edota lapikotan berotu eta bainatu. Baina, hainbeste dira ur beroa mementoan izatearen onurak, ez nukeela beste teknologia batzuentzat aldatuko. Mendian biziko banintz, denbora askorekin eta lasaitasunean, behar bada ur beroa etxean izatea ez litzateke hainbeste arazo. Gizakiok ditugun beharrak, garai, leku eta bizimodu ezberdinen arabera izan ohi dira, eta teknologiarikiko pertzepzioa ere horiek baldintzatuta dago.

Azkenaldian, gai hauetaz hitz egiteko aukera izan dut Bilboko zenbait nagusirekin (+65). Bakarrik eta beren kabuz bizi dira. Adierazi didate ez direla egungo gizartearen parte sentitzen, analfabeto sentitzen direla. Digitalizazioa leku guztietan dagoela eta duten bizimodua aurrera eramateko beharrezkoa bilakatzeko ari dela ohartu direla. Behar bada, herri txiki batean biziko balira, familiarekin batera, bestelako harreman sozialak josteko aukera duen inguruan, bizitzarako behar asko modu autonomoan bideratu ahal izango lituzkete. Baina aipatzen ditudan nagusi hauek hirietan, pisu txikietan eta bakarrik bizi dira, familiarik urrun (familia baldin badute). Egunerokoari aurre egiteko gaitasuna digitalizazioak aurrera eragiten duen heinean murriztuta ikusten dute, nahiz eta izugarritzko ahalegina egiten ari diren. Noraino dugu gizakiok ordea ikasteko gaitasuna? Pasa den astean, 82 urteko agure batek fisikoki egin ezin duen kudeaketa bat Internet bidez egiteko laguntza eskatu zidan. Denok ditugu mugak, eta behar bada teknologien eraldaketekin eta horrek ekarriko dituen aldaketekin noizbait gu ere analfabetoak izango gara. Askok hitz egiten da belaunaldi ezberdinen arteko harremanak sustatzeaz, entzu horretan, baina belaunaldi ezberdinen arteko harremanak sustatzeko moduak pentsatu beharko ditugu, osterat beti geruza bakanduetan biziko dira nagusiak, eraldaketa teknologikoek ekarriko dituzten gizarte eraldaketei aurre egiteko aukera gabe. ●

NAZIOARTEA



EFE

50 urte Allenderen aurkako estatu-kolpetik: orduko inperialismoa, gaurko negazionismoa

AXIER LOPEZ

17 urtez, zifra ofizialen arabera, 3.065 desagertu eta hildako eta 40.018 preso eta torturatu eragin zituen diktaduraren hasiera markatu zuen 1973ko irailaren 11k. Eta are okerragoa dena, egun horretatik aurrera Augusto Pinochet Ugarteren gidaritzapean, Txile politika ekonomiko ultraliberalaren laborategi nagusi bihurtu zen: estatua ahalik eta funtzio gutxiengoa betetzera baztertzeko duen eredu kapitalista, merkatuari ateak parez pare utzita. Eredu hori mundu osora hedatu eta gaur egunera arte indartsu heldu da.

Lehenengo eta oraingo estatu-kolpe gehienetan bezala, "munduko sheriffaren" interesak erabakigarriak izan ziren Txileko militar batzuek haien gobernuaren aurka matxinatzeko. AEBek desklasifikatutako dokumentuek erakutsi dute Salvador Allendek kargua hartu aurretik ere, Richard Nixon presidenteak agindua eman zuela Allendek presidente izatea eragozteko. Nixonek eta bere Estatu idazkari Henry Kissingerrek Abya Yalako etsai nagusitzat zuten Allenderen bidea, bere proiektu sozialistak arrakasta izanez gero, beste herrialde batzuetara heda zitekeelako.

CIAK partzialki finantzaturako kanpaina sistematikoak herrialdea ekonomikoki eta politikoki ezegonkortzea lortu zuen. Kolpe militarra erraztu zuen giroa prest zen.

PINOCHET JOAN ZEN, KAPITALAREN DIKTADURA GERATU

2006an Pinochet aske hil eta oho-

rez agurtu zuten arren, Txilek lezioa eman dio munduari. Oroimena, justizia eta egiaren alde herri mugimenduek egindako etengabeko presioari esker, diktadurako kriminalak epaitu dituzte -duela gutxi, 25 urteko kartzela-zigorra ezarri zieten Víctor Jara hil zuten militarrei-, desagertuak bilatzeko plan instituzionala dauka.

Baina, 50 urte geroago, diktaduran sortutako botere-egiturak indarrean daude. Espainiako Estatuan bezala, diktadura batetik alderdi politikoetan oinarritutako ordezkari sistema batera pasatzeko prozesuak ez zituen botere-egitura nagusiak ukitu. Faxistek idatzitako konstituzioak indarrean jarraitzen du, enpresa eta familia gutxi batzuek botere ekonomikoa kontrolatzen jarraitzen dute, komunikabide masiboek eskuinaren eta patronalaren menpe darraite...


Ultraeskuina hazten ari den garaioan, Txileko eskuineko alderdiak aritu dira Pinochet eta Allende maila berean jartzen. Adibide gisa, Txileko presidente ohi Sebastián Piñerak adierazi du estatu-kolpearen "erantzukizun nagusia Allenderen gobernuarena da, gutxiengo batek gizarte marxista inposatu nahi izan zuelako". Borreroa biktima izatea ez da historia bortxatzeko saiakera hutsa, hemen eta orain politika egitea baizik. José Antonio Kast buru duen ultraeskuina haratago doa diskurtso negazionista horretan, eta hurrengo hauteskundeetan Txile goberna dezake. ●

Boterearen piramidea

2021eko datuak

Munduko biztanleria
(helduak)

Munduko aberastasuna



Iturria: James Davies, Rodrigo Lluberas, Anthony Shorrocks (Global Wealth Databook 2022)

Pederastia

Elizako erakundeak eta arduradunak ikertu nahi ditu Espainiako Fiskaltzak, pederastia kasuengatik. Espainiako Estatuan momentu honetan 147 ikerketa daude auzitegietan, Eliza barruan izandako sexu abusuengatik, horietatik %67 2000. urtea baino geroago gertaturiko kasuak dira.

Independententzia

Euskal Herrian Euskarazek, lehen aldiz, Euskaltzale Independentisten Topaketak egingo ditu. Urriaren 7 eta 8an izango dira, Villabona-Amasan. *Astindu* barne prozesua dago topaketen atzean, eta euskara eta independententzia ardatz hartuta, zenbait gairen inguruan gogoetatuko dute.

Buru osasuna

Azken zazpi urteetan bikoiztu egin dira buru osasunagatik hartutako bajak Espainiako Estatuan. Gazteen artean izan da nabarmenena igoera: 2019tik %91 hazi da baja kopurua. Emakumeen bajak ia bikoitza dira gizonekin alderatuta. Joan den maiatzean, konfinamenduko zifrak gaititu ziren.

FUKUSHIMA: ISTRIPUA IRAGANEAN, KALTEAK BIZI-BIZIRIK ETA SOLUZIOAK ORAINDIK AURKITZEKE

Halabeharrez hasi dira agorrilaren 24an Fukushimako zentralako urak itsasora jaurtikitzen; ur kontaminatuak metatzeko zisternen %97 beteak dituztelako eta etenik gabe gehitzen zaielako ura –egunero 140 tona–. Ur "deskutsatuak" izanik ere, herritarrek kezkaturik segitzen dute, zentralaren jabe Tepco enpresarekiko mesfidati direlako. Baina uraz gain, ikaragarritzko buruhaustea dute lur kutsatuekin eta lohi erradioaktiboekin baita erreaktoreen barnean urturiko 880 tona erregai nuklearrekin ere.

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

2011ko martxoaren 11ko istripu nuklearraren ondorio kaotikoak gainetik ezin kenduz dabilela eta muturreko fenomeno meteorologikoak areagotuz dabiltzala, zentralak berrabiarazten hasia da Japoniako Gobernuak: 33 erreaktoreetatik hamaika ditu martxan, orotara sei zentralatan. Azkenekoak, uztailaren 28an martxan jarriak, bere 48 urteekin ez du konfiantza ematen. Zaharregia izanik itxi behar bazuten ere, maiatzean bozkatu zuen Japoniako Parlamentuak erreaktoreen biziraupena 40 urtetik 60 urtera luzatzeko posibilitatearen alde. "Segurra" dela itsuki sinetsiko dugu beraz. Eta berdin dio Fukushimakoaren gisara, itsas bazter-bazterrean baldin bada. Hortik hilabete batera hasi dira Fu-

2022an atera zen epaia: 100.000 milioi euroko isuna Tepcoko lau arduradunentzat. "Segurtasun normak eta beren ardurak ez betetzeagatik"

kushimako ur kontaminatuak itsasoratzten.

Milako bat zisternetan metaturik dituzte 1,39 milioi metro kubo ur kontaminatu. 2011n istripua kontrolatzeko xedez tonaka ur jaurtiki zituzten, eta oraindik horretan dabiltza, erreaktoreak tenperatura apalean atxikitze gisan. Gaur egun, zisternetako espazioaren %3 gelditzen zaie, eta egunero 140 tona ur kontaminatu gehitzen zaizkie.

Hori horrela, denboraren orratzak eta moltsak hortaturik, urak itsasora jaurtikitzen hasi dira agorrilaren 24an. Uztailaren 4an onartu zuen urratsa IAEA Energia Atomikoaren Nazioarteko Agentziak, "nazioarteko segurtasun neurriekin bateragarria" izanik eta "pertsonengan ala ingurumenarengan



WIKIMEDIA

MILAKO BAT ZISTERNA. 2011z geroztik ur kutsatua zisternetan metatzen aritu dira, guztira 1,39 milioi metro kubo. Baina zisternak beteak dituztela, ura deskutsatu eta itsasora botatzen hasi da zentralaren jabe Tepco enpresa.

garrantzirik gabeko eragin erradiologikoak" ukanik.

Herritarrak ez dira zentralaren jabe Tepco-ren hitzetan fidatzen eta desadostasuna entzunarazten dabilta. Tartean dira arrantzaleak. Ehun batek dute Japoniako Estatuaren kontrako salaketa aurkeztu. Inguruko herriak ere kezkaturik dira, eta itsas-mozkinen inportazioak gelditu dituzte Txinak zein Hong Kongek; horrek ondorio ekonomiko latzak eragin dizkie arrantzaleei –sektoreko esportazioen %42 ordezkatzen dute bien artean-. Taiwan eta Hego Korea ere aurka agertu dira.

Ofizialki deskutsatu dituzte zentralako urak, bi elementu izan ezik: tritioa eta karbono 14a. Tritioa arriskutsua izan daiteke kopuru handian aurkituz gero, baina IAEAk esgurtatzen duenez, Fu-

**22 milioi metro kubo
lur kontaminatu dira
gune babestu batean
metaturik, eta hor ere
leku eskasiaren arazoari
aurre egin behar diote**

kushimako uren kasuan, ur gehiagotan diluitu dute, erradioaktibitate tasa onargarria izateko gisan –1.500 becquerel litroka (nazioartean onarturiko muga baino 40 aldiz apalagoa, hots, segurragoa)–. *Reporterre* komunikabideak zehazten duenari segi, Alps *Advanced Liquid Processing System* ("Likidoak Prozesatzeko Sistema Aurreratua") teknika erabili dute eta 64 osagai erradioaktiboetatik 62 kendu ahal izan dituzte. Hala ere, oroitara dezagun, istripuaz geroztik zentralaren segipen hurbila egiten duen *l'ACRONique de Fukushima* blog independenteak egiten duen modura, has-tapen batean Tepco ur kontaminatua ur gehiagotan diluitzeko asmoa zuela, inolako deskutsatzerik gabe.

Oraingoz, metaturiko uraren %35 dute deskutsaturik. 2050 urtera arte



WIKIMEDIA

ONDORIOAK EZIN KUDEATURIK. Zentralean metaturiko ur erradiaktiboa deskutsatu eta itsasora botatzen hasi da Tepco enpresa, baina esku artean ditu beste hainbat hondakin. Tartean, erreaktoreetan metaturiko erregai nuklear urtuak. Oraindik ez du aterabiderik horri begira.

iraun beharko luke prozesuak, egunean gehienik 500.000 litro itsasoratzeko baimenarekin. Lehen aldi honetan kontrol lanetan aritu dira IAEAko kide batzuk, baina beti hor egonen direa? 30 urtez egonen dira bertan? Espero dezagun, gezurrez eta faltsututako dokumentuz ere osatua delako Tepco enpresaren iragana. Nor ohartuko litzateke ur deskutsatuari kutsatua gehituko balitzaio? Izatekotan kontrol zorrotza egiten dabilen IAEAko langilea, bestela, inor ez.

GEZURRAK ETA DOKUMENTU FALTSUAK

2002an jakin zen, adibidez, 1977az geroztik enpresaren 17 guneetatik 13etan egindako 29 ikuskapenetan ustelkeria egon zela, erreaktoreetan aurkituriko pitzadura ala akatsak isilean atxikitzeko asmoz. Fukushimako istripuaren harira, 2022an atera zen epaia: 100.000 milioi euroko isuna Tepco-ko lau arduradunentzat. "Segurtasun normak eta beren ardurak ez zituzten

Lehen aldi honetan kontrol lanetan aritu dira IAEAko langileak, baina beti hor egonen direa? 30 urtez egonen dira bertan? Espero dezagun.


bete". Horiek horrela, ur deskutsatuaren itsasoratzeak kezka eta mesfidantza eragitea ulergarria da.

At Fukushima Daiichi, decommissioning the nuclear plant is far more challenging than water release ("Fukushima Daiichin, zentral nuklearra desafektatzea ura isurtzea baino askoz zailagoa da") AP agentziaren erreporta-

jeak azaltzen digu ur horren lekutzeaz gain, beste buruhausterik ere badutela. Batetik, erreaktoreetan urturiko 880 tona erregai nuklearren kudeaketa –gehiago ere izan daitezkeenaren abisua zabaldua du Tepcoren bozeramaille Kenichi Takaharak-. Hain da osagai hilkorra robotak direla bertaratzten. Prozesuak beranta handia hartua du, hain zuzen, metodo konplexua ez dutelako oraindik aurkitua. Urte bukaeraren hastekoak dituzte probak. Baina, Tepcoko zuzendari Junichi Matsumotok aitortu du langileen erradiazioen espesioaren arriskuak murrizteko neurriak "gero eta zailagoak" izango direla. 2051. urterako jarri du garbiketaren epea, baina epe luzeagoa beharko dela diote hainbat adituk, mende bateko lana izan daitekeela gehituz.

LOKATZA, ZENTRALEAN ETA ZENTRALAREN INGURUAN

Eta zer egin euri-urek barreiatutako osagai erradioaktiboekin? Gutxi aipatzen dira, baina datuak bilatzen hasiz



gero, zenbaki beldurgarriak ditugu eskura. Besteak beste, istripuaz geroztik zentralaren inguruko urtegietan analisiak egiten dabilen Ingurumen ministroarenak. Hilabetero, Tokio, Iwate eta beste zazpi prefekturako 73 presatan hartzen du ura. Horien artean hamar dira Fukushima Prefekturan, non 2011

eta 2015 urteen artean neurtutako lur-zoruak batez besteko zesio-kontzentrazioaren maila onargarria gairatu zuten: Ganbe urtean 64.439 becquerel zesio-kiloko, Yokokawa-n 27.533 becquerel eta Mano presan 26.859 becquerel. Baina, gainazaleko urak ez zuenez zesio-kopuru handirik -10 becquerel

baino gutiago-, lokatz hori gehiegi mugitu gabe, bertan uztea erabaki zuen Gobernuak. Osagai erradioaktibo urpean, ur hori edaten dabilta inguruetakoa herritar, abere eta landareak. Urtegiez gain, uraren bide osoan ditugu azterna erradioaktiboak: ibai, erreka zein lurpeko ubideetan.

Ezin kudeatuak dituzte ere istripuak eragindako zaborrentzat espresuki bideraturiko erraustegietako hautsak: istripua pasa eta sei hilabetetara 52.000 tona hauts erradioaktibo zituen gobernuak kontabilizatu. Datu gaurkoturik ez du aurkitu kazetariak, baina istripu-tik hamabi urte pasa zaizkigula, kantitate astronomiko bat irudikatzea ez zaigu neke.

Azken datu kezkarri bat: 22 milioi metro kubo lur kontaminatu dira gune babestu batzuetan metaturik, eta hor ere, leku eskasia bihurtu zaie arazo, Cesium-137ak hamarkada luzeak behar dituelako desegiteko, eta oraindik ere etengabean zabaltzen segitzen du-lako kontaminazioak. Besteak beste, Fukushima probintziako %70 oihana delako eta bertan ezin izan dutelako lur kentzerik egin. Horkoa hor da eta hedatzen segitzen du euri-urekin ala lur-higadurekin.

Onartezina onargarri edo kudeaezina kudeagarri bihurtzeko, erreferentzia aldatu zuten laster: baimenduriko erradioaktibitate maila 100 Bq/kg izatetik 8.000 Bq/kg izatera pasa zen, istripua gertatu eta berehala. Aterabiderik ez denez, "deskutsaturiko" urak itsasora eta "arinki kontaminaturiko" lurak "birziklapenera": bideen, dikeen ala bestelako azpiegituren eraikuntzarako materialei nahasiz txikitzen dute metaturiko erradioaktibitate zama... kudeatu ezina. ●




ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



Evil Eye

Lexuri Badiola

EMAKUME AHALTSUA



AULKIAN EGOTEAK EZ DIZU ERAGOZTEN ZURE BIZI-PROIEKTUA AURRERA EROATEA



Duela bi urte komunikabide askotan agertu bazen ere, ni neu lagun batek jarri ninduen Lexuri Badiolaren arrastoan. “Badakit zeini egin behar diozun elkarrizketa bat”, esan zidan. Ez zebilen batere oker. Badiolarekin parez pare topatzen denak berehala jasotzen ditu haren indarra eta argi hitz egiteko abilezia.

 DANELE SARRIUGARTE MOCHALES  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Hasteko, aurkeztuko zenuke zure burua?

Lexuri naiz, 30 urte ditut, eta gaur egun Pasaian bizi naiz nire bikoteagaz. Ikasketaz gizarte-langilea eta gizarte-hezitzailea naiz, baina momentu honetan nire rol profesionala pixka bat aldatu da eta koordinatzaile moduan nago Elkartearentzat beharrean.

Zer da Elkarteon?

Erakunde koordinatzaile bat da, EAEko hiru elkarte biltzen ditu, eta helburu nagusietako bat du aldarrikapenak egitea ezintasun fisikoa daukaten pertsonen eskubideak bermatzen ez diren lekuetan. Horretarako salaketa zuzenak egiten

dira, edo administrazioan eragitea bilatzen da, gizarte inklusibo eta integratzaile baterantz bidea egiteko.

Orain dela gutxi, ARGIAN, garun-paralisia duten bi ikasleren borroken berri eman da. Zuk oztoporik aurkitu zenuen, ikasi bitartean, gurpil-aulkian joateagatik? Zoritzarrez, bai. Egun batean simulakro bat egin zen, eta eraikina hustu behar genuen. Nire gela lehenengo solairuan zegoen, eta ni jaitsi egin behar nintzen besteen moduan, kalera atera behar nuen, baina igogailua ezin zen erabili. Hasieran eman zidaten erantzuna izan zen: eongo da norbait lagunduko dizu-

na. Kontatzen ari naizen hau bigarren karreraren gertatu zen, gizarte-hezkuntzan; lehenengo karreraren oraindik ez nintzen orain naizen bezalako emakume potentia, ikarak zeuden, segurtasun ezak, baina bigarren karrerarako nire izaera beste era batekoa zen, eta esan nuen: hona arte. Gelakideak ere oso potenteak ziren, eta zerbait egitea erabaki genuen.

Nola bideratu zenuten?

Eserialdi bat egin genuen zuzendaritzaren aurrean, pankarta batekin, etorri ziren beste fakultate batzuetako kideak, eta horren ostean nik egin nituen pare bat batzar zuzendaritza-taldeagaz eta hortik lortu genuen nire gela beheko so-



Lexuri Badiola

LEKEITIO, 1993



Gizarte-hezkuntza eta gizarte-lana ikasi zituen, jendeari aurrez aurre laguntzeko lan bat nahi zuelako, eta udal gizarte-zerbitzuetan aritu izan da hiru urtez. Gaur egun, aldiz, koordinatzaile dihardu Elkartean erakundean (Euskadiko Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Elkarte Koordinatzailea). 2021ean hainbat komunikabidetan agertu zen, garraio publikoko irisgarritasunik eza salatzekeo kanpaina bat bultzatu baitzuen, oihartzun handiarekin.

lairuan ipintzea. Hori zen nik eskatzen nuen: beste guztien moduan neure kabuz irteteko aukera izatea.

Hasieran jaso zenuen erantzun hori, "norbaitek lagunduko dizu" esatea, joera orokortua da zure ustez?

Zoritxarrez, gizarte hau dator modalitate asistentzial batetik, eta nik uste dut oraindik kostatzen zaigula txipa aldatzea. Batzuetan zein jatorrak garen erakutsi nahi izaten dugu, eta horregatik esaten dugu: bada, lagunduko dizut. Ez, laguntza behar badut nik eskatuko dizut, ahotsa daukat-eta eskatzeko, eta eskatzen ez badizut esan nahi du nik ahalegindu nahi dudala egiten. Askotan egiten dugu akats hori: larregi babestu; baina utzi egin behar zaio pertsonari bere gaitasunak gartzten eta bere proiektua sortzen.

Unibertsitateko aldarrikapen horretan, ikaskideen babesa izan zenuela esan duzu. Halako borroketan jendearen babesa jasotzea ohikoa da?

Egia da gelakideek asko bultzatu nindutela, oso babestuta egon nintzen, baina orokorrean daukadan sentsazioa da horrelako borroketan oso bakarrik zaudela. Mundu guztiak pentsatzen du gizartea aldatu egin behar dela eta aurrerapauso batzuk eman behar direla, gizarte inklusibo eta justuaren aldeko komunikatuak denok erosten ditugu, baina eskuak zikindu behar direnean, inork ez ditu zikindu nahi, zuzenean ukitzen ez bazaitu behintzat.

Ez da halako zerbait bultzatu duzun lehen aldia. 2021ean sinadura-bilketa arrakastatsua egin zenuen, garraio publikoko irisgarritasunik eza salatzekeo. Nondik nora sortu zen kanpaina?

Ni beharrean nengoen Getxoko udaleko gizarte-zerbitzuetan, eta egunero egiten nuen Lekeitiotik Getxora autobusean, garraio publikoan. 6:15etako autobusa hartzen nuen Lekeitiotik eta bueltan 16:45etako Bilbotik. Zein zen asuntua? Maiz samar autobuse-ra igotzeko plataformak ez zebiltzala edo akatsa ematen zutela. Eta gidarien erantzuna beti zen: itxaron hurrengoari. Behin, bueltako bidaiari lagun batekin nentorrela, berak esan zidan: Lexuri, honek ez dauka eraginik, beste zeozer pentsatu behar dugu. Hasi

ginen berbetan, eta Change.org-en sinadura-bilketa bat egitea bururatu zitzaigun. Inozente-inozente egin nuen, ez nuen pentsatzen halako oihartzunik edukiko zuenik. Baina sekulakoa izan zen, ordu batzuen buruan 10.000 sinadura bildu genituen, EITBtik deika hasi zitzaizkidan... Eta pentsatu nuen: orain ezin dut atzera egin.

Beldurtu egin zinen?

Momentuan ez; gurpilean sartu nintzen, eta aurrera. Gero bai izan zuen eragina nigan, kontatuko dizut. Baina momentuan elkarrizketak-eta ematen hasi nintzen, eta halako batean diputazioak deitu zidan, batzar bat egiteko. Beldurtuta zeuden. Nik argi neukan batzar horretara ez nintzela bakarrik joango. Bizkaiko elkarte bat kontaktuan jarri zen nigaz, ezintasun fisikoak dauzkaten pertsonen elkarte bat, Fekoor kasu honetan, eta eurekin joan nintzen batzarrerara.

Akordio bat lortu zenuten, ezta?

Bai. Autobuseko plataforma ez baldin bazebilen, eta 15 minutuan ez baneukan beste autobus bat ibilbide bera egiten zuena, taxi bat edo autobus bat ipini beharko zidaten, eta plataformak berrikusteko konpromisoa hartu zuten.

Hitza bete zuten?

Amaitu zen batzarra, pasa ziren egun batzuk, eta ostera ere autobusetako plataformak ez zebiltzan. Baina nik batzarrean esandakoaren karta neukan, eta gidariari adierazten nion. Ez zidaten inoiz taxirik ipintzen, autobus bat baizik, zerbitzuz kanpo, niretzat bakarrik, Hollywoodekoa banintz bezala. Autobus bat ipintzen didazue, taxi bat ez ipintzearen? Harrigarria egiten zitzaidan, baina neurri batean balio zidan. Benetan balioko lidakeena da halako neurriarik ipini behar ez izatea eta ez egitea bereizketarik. Plataformek ez lukete hutsik egin beharko.

Nola dago egoera gaur egun?

Hori ezin dizut esan, orain ez dudalako erabiltzen. Baina bai azpimarratu nahi nuke, aniztasun funtzionala duen pertsona batek uneren batean arazoak baditu igotzeko, berriz ere gogora ekarri behar direla hartutako konpromisoak, hau da, taxi bat edo beste autobus bat jartzeko konpromisoa. Halako konpromisoek ez dutelako izan behar une zehatz horretako nire egoera kon-



pontzeko soilik. Nahiz eta, lehen aipatu bezala, nire desioa aurtobus guztietako plataformak ondo ibiltzea izango litzatekeen, hori baita benetako berdintasuna.

Lehen zintzilik geratu zaigu galdera: nola eragin zizun kanpainaren zalaparta guztiak?

Emozionalki asko ukitu zidan.

Nahaste guztia amaitu zenean, bakan utzi zidatenean komunikabide guztiek, eta bueltatu nintzenez ostera ere nire Lexurira, atzera begiratu eta pentsatu nuen: ai ene, zer pasa da hilabete eta erdian. Ni beti izan naiz oso neska barrurakoia, eta txikikeria batetik, sinadurabilketa batetik, begira zer sortu den.

Instagram kontu bat zabaldu zenuen: *Los secretos que jamás te contaron* [Inoiz kontatu ez zizkizuten sekretuak].

Aniztasun funtzionala benetan zer den erakutsi nahi nuen, era positibo batean. Aniztasun funtzionalari buruz berba egiten denean beti da begirada pixka bat pesimista bategaz eta nik nahi nuen erakutsi aniztasun funtzionala ez dela mun-

“
Laguntza behar badut nik eskatuko dizut, ahotsa daukat-eta eskatzeko, eta eskatzen ez badizut esan nahi du nik ahaleginu nahi dudala egiten”

duko gauzarik okerreana. Aulkian egoteak ez dizu eragozten beharra egitea, bikotea edukitzea, ama izatea... zure bizi-proiektua aurrera eroatea.

Orain Instagram hori geldirik daukazu, ezta?

Bai. Zalantzak sortu zitzaizkidan aniztasun funtzionalaren inguruan beste irudi bat emate horrek nire pribatutasuna eta intimitatea non uzten zuten. Horregatik, hor dago, eta ez dakit berriz aktibatuko dudan.

Eta elkarteren batekin bat egiteko asmorik baduzu?

Ez dakit. Orain Elkarteaneko koordinatzailea naiz. Une honetan nire lanarekin zerikusia duen zerbaitegatik beste elkarteren batekin bat egiten eta, adibidez, nire esperientzia pribatuen inguruko elkarrizketak ematen ez naiz eroso sentitzen, oraintxe nire funtzioetako bat Elkarteanek hainbat alorretan duen posizionamendua erakustea eta zabaltzea baita.

Beste elkarte batekin bat egingo banu, elkarrizketak emanez adibidez,

ez nintzateke koherentea izango nire buruarekiko eta lanarekiko, eta ezinbestekoa iruditzen zait koherentzia mantentzea, horrek ematen baitio zentzua egiten dudanari.

Gizarte inklusiboago bat lortzeko bidean, zer erronka ikusten dituzu gaur egun?

Seme-alabak aniztasunean heztea, zeren guraso denek esplikatzeko dizkiete euren seme-alabei gauzak, baina gero benetan daukazunean pertsona bat aulkian dagoena zure kuadrillan, nire kasua izan dena, ba nerabezaroa oso gogorra da. Gizakia egoista da berez, eta nerabezaroan bikoiztu edo hiru-koiztu egiten da joera hori.

Zer-nolako esperientziak izan zenituen nerabezaroan?

Parrandan, adibidez, taberna batek eskailerak bazituen ezin nintzenez sartu, taberna kanpoan geratzen nintzen bakarrik, besteek bertan geratu nahi zutelara argudiatzen zutelako. Errazena ni etxera joatea zen, horrela "arazoa" konponduta egongo zen, baina ni orokorrean ez nintzen etxera joaten haien eskubide bera nuelako bertan egoteko.

Gogorrena haietzako une horretan "karga" bat nintzela sentitzea zen, egoera horren aurrean nirekin nor geratu pentsatzen aritzen zirelako. Nire iritzi pertsona batek sentitu dezakeen sentsazio gogorrenetakoa da, eta kontuz ibili behar da horrekin, bizitza osoan markatzen duten orbainak baitira.

Zer egin beharko litzateke?

Nahiz eta gaur egungo gizartean, denbora guztian azkar eta presa sentsazioarekin ibili, nire iritzi seme-alabekin konpartitzen diren espazioetan garrantzitsua da gai hauek planteatzea eta horren inguruan lanketa bat egitea, aniztasuna aberastasuna dela erakusteko eta desberdintasunaren aurrean haurrak ez badaki zer jarrera hartu, pertsonari lasai asko galde diezaion —hortik hasten baita normalizazioa— eta benetan behar denean laguntasuna eman diezaion. Gizartea anitza da, gero eta gehiago izango da, eta bide horretan hezi behar dira umeak.

Badakit ez dela erraza, eta ahalegina eginda ere agian ez direla lortuko nahi diren emaitzak, baina horretan lan egin behar da etengabe, hori baita guraso izatearen erronketako bat.

Zuk zeuk ama izan nahi zenuke.

Lehenengo bikote moduan gozatu nahi dugu, baina aurrerago guraso izateko abentura horretan sartzeko prest gaudela, bai.

Desio edo nahi horri buruz hitz egiten duzunean, aurreiritzirik aurkitzen duzu? Zer eratakoak?

Nire familian eta hurbileko pertsonetan ez, haiek badakite errealitatea ematen denean bikotearen erabakiz egin dela, gure desio bat dela, eta laguntzeko prest egongo dira. Baina gizartean oraindik aurreiritziak daude gizarteak inposatutako "normaltasun" horretatik ateratzen den familia batek guraso izatea erabakitzen duenean, eta zalantzak sortzen dira. Adibidez, "zelan moldatuko zara umeagaz?".

Zein izango da zure jarrera horren aurrean?

Kontziente naiz beste estrategia batzuk erabili beharko ditugula, eta segur aski umea txikia denean bere aitak besoetan gehiago hartuko duela nik baino, baina horrek ez du esan nahi ama txarra izango naizenik edo ez dudarik nire semea

edo alaba maiteko. Gauza da gizartean, oraindik ere, guraso izatearekin zerikusia duten alderdietan emakumeari ardura gehiago ematen zaiola, eta hori ez da horrela izan behar. Familia bakoi-tzaren errealitatea desberdina da eta bakoitzak ikusi behar du zer estrategia komeni zaion.

Nik argi daukat guraso izatearen abenturan sartzea erabakitzen dugunean, berriz ere terapia psikologikora joko dudala, sortu ahal diren beldur guztiei aurre egiteko, eta emozio desberdinen zalaparta hori baretu eta bereziki ulertzeko, eta baita egon ahal diren aurreiritziei ahalik eta hoberen aurre egiteko ere. Gauza asko izan ditzakegu, baina, osasun mental egokirik gabe, daukagun horrek ez digu ezertarako balio, ez garrelako zoriontsu izango.

Bukatu aurretik beste zerbaite gehitu nahi zenuke?

Aniztasun funtzionala izanda ere gauza

asko egin daitezkeela transmititu nahiko nuke. Ezintasun bat ez duten seme-alaben familiei aspektu hauek lantzeko esango nieke, enpatiaren ikuspegitik, zeren gaur niri tokatu zait baina bizitza minutu batean aldatu daiteke, eta egoerak buelta eman. Bizitza nahiko konplexua da oraindik traba gehiago jartzeko.

“

**Kontziente naiz
beste estrategia
batzuk erabili beharko
ditugula, eta segur aski
umea txikia denean bere
aitak besoetan gehiago
hartuko duela nik
baino”**

Eta aniztasun funtzionala duten pertsonen gurasoei?

Beldurrak izatea oso normala dela aipatuko nieke, eta lasai egoteko. Egia da beldur horiek euren seme-alabei transmititzearekin kontuz ibili behar dela, beldurrak oso azkar txertatzen direlako eta gero ez da erraza horiek apurtzea. Nire iritziz, aniztasun bat izan ala ez, seme-alaba bati egin ahal diozun oparirik hoberena hegan egiteko hegoak ematea da, beldurrak beldur. Nahiz eta aniztasun bat izan, zuk uste baino gaitasun gehiago ditu. Animatu eta eman hegoak hegan egiteko! ●

Hi(ZKI) BRI Literatura mutanteak DOAK


Euskararen Etxea

Agoitz Plaza 1 • 48015 Bilbo • Metroa: San Ignazio (Lekeitio irteera)

19:30

Sarrera
doan**> URRIAK 19**

Ahots Planeta podcasta,
zuzenean

Idoia Carramiña eta Albina Stardust

> URRIAK 26

**Elkarrizketa bat pianoarekin:
Zahartzarora emakumeen
euskarazko poesian**

Ainhoa Urien Telletxe
eta Nerea Iglesias Lili

> AZAROAK 23

**Bertsolari bekatorosak,
Ane Labaka eta Miren Amuriza
bertsolariak eta
Dom Campistron ilustratzailea**

> AZAROAK 29

**Hau gerra bat da,
Pizifaktoria Ideien Laborategia**



Polo anitzeko globalizazioa

Abuztuaren amaieran BRICS akronimoaren baitan batzen diren herrialdeak (Brasil, Errusia, India, Txina eta Hegoafrika) gailurra egin zuten Johannesburgon. Bertan hartutako erabakien artean 2024an *elkartea* beste sei herrialdetara zabaltzeko ekimena izan da entzutetsuena. Saudi Arabia, Argentina, Egipto, Arabiar Emirerri Batuak, Etiopia eta Iran 2024an batzen direnean, hamaika kideko taldeak munduko biztanlearen %46 eta Barne Produktu Gordinarean %37 ordezkatuko du.

Hedapen hori etorkizuneko hedapen gehigarrien hasiera izan daiteke eta blokearen beste fase bat irudikatzen du. Elkarteko herrialde indartsuenak diren Txinak eta Errusiak Mendebaldeko hegemonia politikoaren eta ekonomikoaren aurrean benetako alternatiba eraginkorra eraiki nahi dute, Hegoalde Globalaren lider gisa aurkeztuta. Munduko eredu orekatuagoa eta bidezkoagoa lortzeko ahalegin moduan aurkezten dute blokearen hedapena. Kontuan hartu behar da gaurko gobernantza globala 1945eko botere banaketaren eta harreman ekonomikoaren isla dela eta egungo egoera oso bestelakoa dela.

Nazioarteko sistema multipolarra aldarrikatzearekin bat II. Mundu Gerraren irabazleen neurri sortutako Nazioarteko Diru Funtsa, Munduko Bankua edo Nazio Batuen Erakundea (NBE) bezalako instituzioen erreforma da BRICSen agendan dagoen helburu nagusieneratikoa. Norabide horretan Shanghain

G7 taldearen kohesio mailatik oso urrun egongo da BRICSen foroa. Komunean duten lotura Mendebaldearen aurkako jarrera da, baina kohesio estrategikoa eraikitzea zaila izango dute

egoitza duen eta lehen aipatutakoen alternatiba izan nahi duen Garapenerako Banku Berria -GBB- sortu zuten kideek. Banku horrek bide xumea izan du, izan ere, garapen proiektuetan 33 mila milioi dolar eskas finantzatu ditu orain arte. Eta etorkizunerako perspektibak ere ez dira oso onak, izan ere, Errusiaren aurkako zigorrek zaildu egingo dute GBBaren ibilbidea.

BRICSen agendako beste puntu garrantzitsua da estatuen arteko merkataritza harremanen desdolarizazioan sakontzea. Esan gabe doa estrategia horren balizko arrakasta dolarrarentzat eta AEBetako ekonomiarentzat benetako eztanda izango litzatekeela.

Mendebaldeak bultzatutako G7 -BPG handiena duten zazpi herrialdeek osatutako- bezalako foroaren ibilbide ma-



MIKEL ZUBANO
EKONOMIALARIA

kurak, G20 taldearen azken bileraren porrotak eta NBERen operatibitate ezak BRICS blokeari Hegoalde Globalaren lidergoa bereganatzeko bidea errazten diote.

Nolanahi ere, BRICS blokea ez da homogeneoa, interes ugari daude partaideen artean eta sarritan interes horiek kontrajarriak dira. Hedapen berriak egoera hori areagotu egingo du, zalantzarik gabe. G7 taldearen kohesio mailatik oso urrun egongo da hamaika estatu kideen foroa, esate baterako. Komunean duten lotura, batez ere, Mendebaldearen aurkako jarrera da. Baina kohesio estrategikoa eraikitzea zaila izango dute, kontuan hartuta bertan Txina eta India bezalako herrialde etsaituak badirela, edota oso AEB zaleak diren Saudi Arabia edo Emirerriek Errusia edo Txinarekin adostu beharko dutela.

BRICS blokearen aro berriak mundu multipolarren hasiera irudika lezake, baina ikusteko dago bide horrek nahikoa indar izango ote duen egungo AEBen hegemonia eta instituzio multilateral ofizialak zalantzan jartzeko. Hedatuko den BRICSeko estatu gehienetan sistema autokratikoak izatea ez da aitzakia foro honek gaur egun sakoneko erreforma eskatzen duen Nazio Batuen erdua aldatzeko tresna baliagarri gisa irudikatzen. Izan ere, munduko eredu politikoa eta ekonomikoa bidegabea izateaz harago, seguritate, pobrezia edota larrialdi klimatikoa bezalako premiazko arazoei aurre egiteko disfuntzionala da. ●

Argitasun itsugarria



TERE MALDONADO
FILOSOFIA IRAKASLEA



PAULA ESTÉVEZ

Jakinduria eta argia lotzeko tradizioa oso zaharra da. Indoeuropar hizkuntzetan biak estekatzen dituzten metaforak hain dira ohikoak, hain daude sartuta, non ez baitira ia kontzienteki sumatzen. Baina ez horietan soilik, gureak ere lotura bera du berezko: *argia* esaten diogu pertsona azkarrari eta *adimenaren argiaz* hitz egiten dugu. Erlijioak jakinduriaren bidea argitsua dela esan du maiz (arrazoi eta fedearen arteko aurkakotasuna disolbatu nahian), gogora dezagun *Ego sum lux mundi* leloa edo Agustín Hiponakoaren argiztapenaren dotrina. (Jainkosek libra gaitzatela bidezidor argitsuetatik; paradisorantz naturalki doazen bidezidor argitsu baino gehiago infernurako artifizialki argiztatutako bideak besterik ez baitziren).

Antzinaroan, jakituria objekturik argitsuaren ezagutza dela ulertu zen maiz. Platonek haitzuloaren mito ospetsuan argia eta itzalarekin jolastu zuen, jakinduriarekiko bidea –hezkuntza dela medio– itzalpetik askapena zela irudikatuta. Filoponek, VI. mendeko filosofo eta teologo alexandriarrak, Aristotelesi egotzi zion *sophia* (jakinduria) eta *sápheia* (argitasuna) arteko hitz-joko bat egin izana, lehenak gauza guztiak argitzen zituelako. Gaur oraindik guretzako, argi

ikustea ondo ulertzea da eta ilunpetan ibiltzea ezjakintasunean galduta egotea.

Metafora berbera dago Erdi Aroa garai ilun gisa ikustearen atzean. Nahiz eta aspalditik modan egon horrenbesterako ez zela izan errepikatzea, alegia, Erdi Aroa ez zela margoztu diguten eta irudikatu dugun aro ilun –ezjakin– hura (oraingoan arriskua beste muturrean dago: Erdi Aroa izan ere ez zen zerbait bezala irudikatzea, berdintasun- eta anaitasun-paradisu bat bezala). Kontuak kontu, Erdi Aroaren ostean Errenazimendua etorri zen, argia berpiztuz eta argiztapena gailurreraino eramanez, ilustrazioraino, “Argien Mendea” ere deiturikoa, arrazoimena kandela eskuan zetorrelakoan, fedeitsuak eta akritikoak sortutako iluntasuna argitzera.

Erromantizismo alemaniarrak –ilustrazioaren kontrako erreakzio garaikide erradikalak eta, autore gehienetan, oso atzerakoiak– argiek itsutu egiten gaituztela erakutsi nahi izan zuen (“Argi gehiegi mende honetan!” oihukatu zuen Herderrek, Erromantizismoaren aitetako batek). Udako eguerdiko argiak ez du ezer ikusten uzten, dena erre eta lautu egiten du. Gauzak askoz profilatutago agertzen dira iluntzeko argi zeharrek. Argi-ilunean, hobeto bereizi eta hautematen da dena. Argitasun gehie-

giko unean, itzalik ez dagoenean, ez da ondo ikusten.

Argien itsualdiaren aurkako Herderren oihua Kanten *Sapere aude!* (norbere ulermenaz baliatzeko deia) delakoaren kontrako gisa ulertu da sarri. Ni osagarriak direlakoan nago, baina eztabaida hori alboratuko dugu oraingoan.

Kontua da badaudela pentsalari argiak, hau da, burutsuak, azkarrak, besteek ikusten ez dutena fokuratzen eta itzalak halakotzat seinalatzen dituztenak (pentsalari esan dut; dendari, garbitzaile, irakasle edo politikari esan nezakeen). Baina badaude, halaber, *iluminatuak*, ia naturaz gaindiko botere batek eraginda jokatzen dutela uste dutenak, egiaren jabe direlakoan. Gauzak benetan nolakoak diren ezagutzeko orduan, gainerakoek baino gaitasun handiagoa dutela sinestutako iragarleak. Pentsalari argiak, batetik, eta *iluminatu* hutsak, bestetik. Zertan bereizten dira? Argia eta zehatza ote da bien arteko muga? Bi kasuetan, argia, jakinduriaren metafora. Baina ez al da gertatu inoiz, us-tez oso argitsu diren horiek garaiz ez galgatzea eta *listopasatu* bihurtzea? Esango nuke behin baino gehiagotan ikusi dela horrelakorik (baietz, guztiok daukagu bat buruan!). Jainkosek ez dezatela permititu argitasunak itsutu gaitzan. ●

Txosnen geroa



KIMETZ ARANA BUTROE
BARATZEZAINA

Bertako osagai ekologikoekin egin dako pizzak izan dira aurten hemengo txosnetako afarietako berrikuntza arrakastatsuenak. Bi txosnek elkarrekin antolatu dituzte elikagaien prestakuntza lanak eta gauean batzuk pizzak egiten ari ziren bitartean besteek bokatak eskaini dituzte. Sukaldeko irabaziak bion artean partekatu dituzte.

Txosnak gauez ez ezik egunez ere ireki dituzte, gosariak eman eta familiarientzako kultur eskaintza antolatuzko. Adinekoetatik, familia, gazte eta haurretara, zabalagoa da txosnagunean dabilen jende multzoa.

Euskararen presentzia mezu guztietan bermatzeko adostasuna lortu da partaide guztien artean, eta hizkuntzari erabilera emateko euskaraz antolatu dira familia eta gazteentzako ekimenak. Berdintasun lantalde bat ere sortu da, txosnagunea denontzat espazio seguru izateko eta espazio publikoan, kirol zein kultur ekimenetan, genero berdintasunerako urratsak emateko.

Energia kontratua Goienerrekin egin dute zenbaitek eta gunearen energia kontsumoa murriztu eta autonomia irabazteko ideiak lantzen ari da udala, arlo horretan ikasketak egiten ari diren gazte batzuekin.

Herrira iritsi diren emigrante berriei gunea nola eskaini ere pentsatzen ari dira, guztion gozagarri den espazioa sortzeko.

Izan zitekeen, baina oraindik gure txosnagunea ez da halakoa. Hiriburuetako konpartsa, peña eta elkarte askotan belaunaldi aldaketa gertatu den arren, besteetan badira errelebo faltaz ardura postuetan hamarkadak dirauten pertsonak eta txanda bolondresak lortzeko zailtasunak dituztenak. Horrek kolokan jartzen du espazioaren geroa, eta aldatetarako eskatu.

80ko hamarkadako euskal rockaren giroan erakunde ezberdinek herriko bazterrean txosnak ezartzea erabaki zutenetik, periferiatik jaietako espazio nagusi bihurtzera, bidea egin dute txosnaguneek. Baina nola eraiki alternatiba gaurko zentralitatean?

Red Bulla saldu ala ez, edo txartelarekin ordaintzeko ezbaian, zaila zaigu eredu berriak imajinatzea. Toki askotan, ordea, txosnaguneak dira erakunde eraldatzaileen eragingune nagusia. Gainera, errepresioari erantzuteko baliabide ekonomikoen beharra murriztu da. Horrek berrasmatzeko aukera ematen die txosna sozial eta politikoei.

Orain urteak, Pepsiren mostradorez osatutako Gazte Mugimenduko karpan gure erakunde iraultzaileak finantzatzeko beste modurik ez ote zegoen galdetu zidan Baxe Nafarroako laborari gazte batek. Iparraldean badira ereduak. Agian bide berritan hasteak ekarriko du behar den errelebo, berritze eta ilusioa. ●

Tokiz aldatzea



CASTILLO SUÁREZ
IDAZLEA

Tarteka burutara etortzen zaidan irudi bat da. Maddi Barberrek berreskuratutakoa da, bere dokumentaletako batean. Itoizko urtegia egin zuten garaikoa. Mutil batzuk kamioi txiki batean doaz. Urak hartu dituen lurrez ari dira hizketan. Errepidea erdi estalita dago, eta zuhaitz batzuen adaburuak besterik ez dira ikusten errepide ondoan. Mutilak geratu egin dira ezpondan, eta aitzurrekin zuhaitz batzuk erauzi dituzte beste toki batean jartzeko. Ez dakit non jarri zituzten. Sustriak erroto ote ziren edo idortu ziren. Bertan utziz gero seguruena urak estaliko zituen erabat, edo beharbada erdi agerian geratuko

ziren ametsetako irudia osatuz. Lehen-goan bulegora etorri zitzaidan emakume bat. Loreontzi batean basoko iratze bat zekarren opari, urtetan etxeko balkoian eduki duena. Izan ere, nik beti esaten dut umetan iratzeak ekartzen nituela basotik baina lurrez aldatzen nituenean hil egiten zirela. Etxe atarian daukat iratzea, toki ospelean. Handik ez oso urrutira aitak Oteitzako jaiotetxetik ekarritako pikondoa dago. Inoiz ezer eman ez duena toki hotzegian dagoelako segur aski. Batzuetan ezinezkoa da tokiz aldatzea; beste batzuetan, berriz, uste baino errazagoa. Haatik, beti gara toki batekoak, nahiz eta urak estali. ●

Yasuni: eredia eta garaipena



**IÑAKI BARCENA
HINOJAL**
EKOLOGISTAK
MARTXANEKO KIDEA

Yasuni: Ez da teleberrien eta komunikabie erraldioen berri printzipala izan baina... Joan den abuztuaren 20an Ekuadorko Errepublikako herriak (17,8 milioi biztanle) baietz borobila (%59 alde) eman zion kontsulta konstituzional batean, hauteskunde presidentzialekin batera, Yasuni Biosferaren Erreserban (1989an izendatua) petrolio gehiago ez erazteari. Kontutan hartzen badugu Ekuadorko sistema ekonomikoan petrolio delatua, nekazal produktuekin batera, egungo ekonomia-aren atal nagusia, erabaki hori oso esanguratsua dugu. Nola Ekuadorren? Iparretik hegoaldera Andeetako mendi eta sumendien lerroak bitan banatzen duen herrialdean, herri indigenak populazio osoaren %7 dira (kitxuak, shuar edo jibaroak, waoraniak, awak, chachiak eta abar...), eta 2008ko konstituzio berrian euren eskubideak babestuta agertzen dira. Konstituzio eredugarri horretan, lehengo aldiz mundu osoan, naturaren eskubideak ere jasotzen dira.

Duela hamar urte, Rafael Correa presidentea herri indigena eta gizarte mugimenduetatik sortutako Yasuni ITT nazioarteko inizatiba bertan behera utzi zuen, nazioarteko komunitatearen

Hor dugu irakaspen nagusia: borondate politiko sendoa, mobilizazio forma berriak, eta aliantza zabalak alderdi politikoaren eskema klasikoetatik kanpo, formula irabazle bihurtu dira

dirulaguntza eskasengatik, eta petrolio erazteko baimena eman zuen. Ekuadorko herri mugimendu eta komunitate indigenak ez ziren ados, eta orain onartutako kontsulta konstituzionalerako lanak hasi zituzten.

Yasunidos: 2013 eta 2023 bitartean Yasuniren aldeko kanpaina emankorra ez da gelditu, nahiz eta estatuaren instituzioetatik, Polizia zein botere judizial eta legegiletik, edota elite ekonomiko-

gandik erasoak etengabeak izan. Eta nire ustez hor dugu irakaspen nagusia: borondate politiko sendoa, erakuntza eta mobilizazio forma berriak, eta aliantza zabalak alderdi politikoaren eskema klasikoetatik kanpo, formula irabazle bihurtu dira. Yasunidosen lan ikaragarria hamarkada honetan garaipenaren gakoa izan da. Herri eta gizarte mugimenduen "mugimendu" ireki bat osatu dute, euren hitzetan: "Ideologia kapitalistak eta antropogenikoak ekarritako krisi ekosozialari eta aldaketa klimati-koari erantzuteko, bizitzaren defentsan bere forma guztietan eta parte hartze aktiboa sustatuz, erdiko ardatz politiko moduan". Eta oztopo eta kolpe latzen gainetik (errepresioa, mehatxuak, isunak, *fake* eta kontrakanpainak) helburua lortu dute. Orain, munduko bazter guztietatik eredu energetikoaren aldaketarako urrats garrantzitsu hau ezagutu eta jarraitu behar dugu.

Yasunizatu! Nnimmo Bassey, Nigeriako aktibista ekosozialistari aspaldian irakurri genion Yasuni ez zela Amazoniako eremu bat soilik. Handik sortutako ekimena petrolio lurpean uzteko planeta osoan aplikagarri eta eredugarria zela. Hala bedi! ●



bilbon
euskaraz

17 euskaltegi, eskaintza zabala eta dirulaguntzak

Euskarari baietz

Matrikulazio epea zabalik euskaltegietan!



B

Bilbao

OTU

Sortu zuen istorioak



Zenbateraino egin dezake
hegan zure irudimenak?

Zenbateraino zara gauza
ipuin-kontalari trebeenen
mailan aritzeko?

Bota kartak eta **sortu istorioak!**

70 karta, irudimena, hizkuntza,
ahozkotasuna... ludikoki lantzeko, eta
batez ere, disfrutatzeko eta gozatzeko.

Prezioa **12 €**

IRUÑEKO KATAKRAKEK 10 URTE

JAN, EDAN, IRAKURRI... MUNDUA ALDATU

Datorren abenduaren 31n hamar urte beteko dira Iruñeko Katakrakek atek ireki zituenetik: ostatua, liburutegia eta ikuskizunetarako areto nagusia biltzen zituen espazio berriak. 2016an laugarren hankak mahaia osatu zuen: argitaletxea. Iruñerrian bakarra da Katakak, bai gunehoriengatik, bai izaeragatik. Nahi bada, badu zerikusirik alternatiboarekin, erresistentziarekin, ametsekin. Edo besterik gabe, ardo ekologiko edo kafe eder bat gozatzearekin.

 XABIER LETONA BITERI  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Iruñeko Alde Zaharrean dago Katakak, Kale Nagusiaren 54an. Kanpoko bi upeletan beti da norbait, eta barne aldea bor-bor dago abuztu bukaerako eguerdi eguzkitsuan. Nerea Fillat eta Hedoi Etxarterekin sartu gara ostatura. Biak dira Katakak kooperatibako langile eta bazkide, eta hasieratik daude proiektuan. Bazkari ordua da eta Juan Etxenike mahaiak atontzen ari da. Hogeitatu menu ematen dituzte batez beste eguneko. Hiru pisuko eraikina da: behean kantina eta liburu-denda ditu, bigarrenean liburu-denda eta hirugarrenean 200 bat lagunentzako aretoa, non ikuskizunak, hitzaldiak, edota bestelako bilkurak antolatzen diren.

Hamabost lagun ari dira lanean Katakak eta horietatik zortzi kantinan. Egia esan, lanak esparruka banatuta ditzuzte, baina horietako batzuk partekatuta ere bai. Fillatek lanaldi erdia argitaletxeari eskaintzen dio eta beste erdia egiturazko funtzio orokorrei. Etxartek argitaletxean ematen du erdia eta beste erdia liburu-dendan. Tira, urtaroaren arabera denen jardunak aldatzen dira: Sanferminetan gehienak tabernara, Durangoko Azokan taldeak han jartzen du indarra, eta Gabonetan liburu-denda.

Proiektua, baina, ez zen hutsetik abiatu, Iruñeko Curia kaleko Hormiga Atómica liburu-denda izan zuen aurrerikari. Hark ere liburuak eta ostatua

uztartzeko zituen, eta 2007an sortu eta 2013ra arte iraun zuen. Baina Curiakoa nahikoa ez eta gehiago nahi zuten, eta espazio handiago baten bila hasi ziren. Hobeto esanda, makina bat proiektutan gertatzen den moduan, bi norabideko tentsioa egon zen: batzuek Curian jarraitu nahi zuten, eta hangoari eutsi; besteek, oster, hazi eta jarraitu beste nonbaiten.

Bila hasi eta 2012an erosi zuten egungo eraikina: "Iruñeko lehen eskola laikoa izan zen eta Sarasate [Pablo] eta Baroja [Pio] hemendik pasatu ziren", dio Etxartek. Geroago karate erakusten zen kirol gunea izan zen eta Katakak aurretik, 90eko hamarkadan, arte gale-





ria bat. 1.600.000 euro behar zituzten proiektu berriari ekiteko. Dirutza itzela haien begietan. Nola lortu?

Lehen zutabea "mailegutza militantea" izan zen, hau da, proiektuarekin bat egin zezaketenei dirua eskatzea. 120 pertsonak 700.000 euro jarri zituzten mailegutun: "1.000 eurotik 100.000 eurora jar zitekeen mailegu gisa, etekinik gabe, eta kasurik onenean %1eko interesarekin". Bigarrena Triodos bankuak emandako mailegua izan zen. Eta hirugarrena dohaintzak: 100.000 euro lortu zituzten. Pandemia eta gero urtean diru kopuru bat jartzen duen bazkide figurarekin ere hasi dira, eta dagoeneko 350 bat dira. Hamargarren

urteurrenaren une berezi hau baliatu nahiko lukete 500era iristeko.

Iraganari so, edozein herri proiektutan ohikoa denez, hasierako epika laster azaleratzen da elkarrizketetan. Horien artean oso gogoan dute Baionan, Toursen edota Bordelen egindako enkanteak. Azkar joan, azkar erabaki eta azkar ekarri gauzak, hala nola, liburu-dendako apal eta kantineko aulki guztiak. Hiruzpalau tona material Emauseko Trapuketarien lokal batean gorde behar izan zuten. Sasoi haiek tinko iltzatu zaizkio memorian Etxarteri: "Garai gogorak izan ziren. Katakarak irekitzean sikiera lortu genuen egun batean jai egitea, aurretik egunero egiten genuen lan".

ETA HAU GUZTIA ZERTARAKO?

Katakarak. Izen indartsua, adierazgarria, onomatopeikoa. Apurto, datorkigu burura. "Ireki aurretik izenak debate luzea eragin zuen", dio Fillatek, baina azkenean kontsentsu zabala izan zen Katakarakekin. 1980ko hamarraldiaren erdialdean Iruñean etxe eta lokal hutsten okupazioaren bueltan sortutako herri mugimendua izan zen Katakarak, eta hartan ibilitako hainbat kideren oniritzia eskuratu ondoren, izen horrekin abiatu zen espazio berria.

Ateak ireki eta, halakoetan ohi denez, denetik entzun zitekeen kalean: "Pode-mos inguruko espazioa da", "15-Mko mugidatik ateratako zerbait", 2015ean

Joseba Asiron Iruñeko alkatearen gobernu taldean aritu zen Aranzadi plataforma politikoan ere parte hartu zuten haietako batzuek... Kazetari honek nonbait irakurri du Katakarak “komunen espazioa dela” eta hala ote den galdetu die Fillat eta Etxarteri. Fillaten erranetan, “batzuentzat anarkistak gara eta beste batzuentzat, aldiz, Podemosekoak...”, baina gure taldea oso anitza da ideologikoki eta hemen asko eztabaidatzen da denetik”. “Azken finean –zehaztu du Etxartek– akordioa erabaki materialen inguruan eraiki dugu, eta ez oinarri ideologikoetan”. Elkarrizketan geroago sartuko den Aitor Balbas lankideak ere haien arteko pluraltasuna azpimarratzen du: “Hemen mingarriena gure arteko eztabaida politikoak dira”.

Definizio bakarretik ihes egiten dute. Zer egin, zer jan, zer erosi... hura zara. Hori ere izan daiteke kooperatiba hau zer den adierazteko modu bat: sortu denetik Iruñean izan diren greba orokor guztietan espazioa itxita izan dute; 2018an Alternatibien Herria Iruñean ospatu zenean, antolaketaren ardatzetako bat Katakarak izan zen; elikadura burujabetzarekiko konpromisoa agerikoa da kantineko jan-edanetan, eta bertan jaso daitezke, esaterako, Errigorari erositako saskiak. Biba Ardoak kooperatibako ardo ekologikoak bakarrik dituzte. Coca Cola markarik ez dute inoiz saldu. Hamazazpi euroko menuak bi gutxiago balio du prekarioa zarela adierazten baduzu. Eta ostegunetan Lantxotegiko migratzaile gazteak ikus ditzakezu bertan jolasten.

Edozein kasutan, erresistentzia, eraldaketa, feminismoa, antifaxismoa, sexu-aniztasuna... moduko kontzeptuak airean dantzan dabilta Katakrakeko langileekin izandako elkarrizketen bueltan. Eta dena liburu eta irakurketaz zipliztinduta, diotenez “liburuak giltzarriri direlako pentsamendu kritikoa eta irudimen politikoa sustatzeko”. “Gure erronka da aldamenen ditugun kolektibo eta aktoreak toki erradikaleta eramatea”, azpimarratu du Balbasek.

25.000 LIBURUKO FUNTSA

Kantinean aurrera jo eta zazpi eskailera gaindituta iritsi gara proiektuaren harri-bitxira: liburu-denda arras jantzi, argitsu eta erakargarria. Eraikineko espaziorik handiena da. Bestelako elikadura dago hemen, baina mama goxorik ere ez da falta eta zintzurra bustitzeko Nafarroako ardo ekologikoak salgai dituzte apal batean, besteak beste, Azpea, Egiarte, Biurko, Mendiko, Aristu edo Lezaun. Anayeta behiak Canal Roya suntsitu nahi dutela gogorarazten digu eta Esako urtegiaren handitzearen aurkako kartela ere hor da.

Sarrera gaineko kartel handian Karl Marx langile erretzaile bat so dugu eta haren begiradapean egin dugu aurrera. Angela Davis gazteak gogoratzen digu “bizitza dela handiena” eta David Bowie zenak hala diosku: “Erabateko zoriontasuna zer den? Irakurtzea”. Narratibaz inguratutako korridorean barneratu ahala ikus ditzakegu Afrikako edo Arabia eta Persiako narratiba sailak. “Fik-

zio subertsiboa”, dio beste titulu batek, eta gazte beltzaranaren erretratua hala mintzo zaigu: “Ghettoan anaia-arrebok nobela irakurtzen dugu”.

Katakrateko liburuak, narratiba, euskarazko saila, haur literatura eta komikia atzean utzi eta bigarren solairura jo dugu. Politika, filosofia, ideologia eta erlijioen mundura sartu gara. Baina poesia, artea, arkitektura eta beste hainbat alor ere hor dira, nor helduko zain. Denera, liburu-dendak 25.000 liburuko funtsa du. “Euskal Herriko handienetakoa izango da, handiena ez bada. Pentsa, bakarrik antzerki sailean 400 liburutik gora ditugu”, diosku Etxartek harro.

Fillat eta Etxarterekin jarraitzen dugu eta, milaka libururen begiradapean, bigarren solairuko mahaian eseri gara. “Ez ginen hutsetik abiatu, La Hormiga Atómicatik 7.000 liburuko funtsa ekarri genuen”, dio Fillatek. La Hormigako sei urteko esperientzia erabakigarria izan zen abiatzeko. Politika eta filosofia sailek famatu dute liburu-denda, eta hori bada, zalantzarik gabe: “Nafarroako filosofia sail bakarra dugu, hona Nafarroako Unibertsitateko irakasle eta ikasleak ere badatoz”, azaldu du Etxartek. Fillatek, alabaina, liburu-denda generalista dela azpimarratu du, “eta guztia dugu espezialitate”. Liburu-denda jende askoren artean pentsatutakoa dela diote eta mantentze lana ere hala egiten dutela: “Bezeroek asko laguntzen digute –dio Fillatek–; udan, adibidez, kanpoko jende asko dator eta erreferentzia ugari jasotzen ditugu”.

Nafarroako egunkari batean irakurritakoaren arabera, azken bi urteetan hamar liburu-denda itxi dira Iruñean. “Bai, eta beste batzuk ireki egin dira”, dio bikoteak. Haserretuko dira esaten badiezu herritarrek, eta bereziki gazteek, ez dutela irakurtzen. Hiru lagun ari dira lanean liburu-denda honetan eta galderak berez datoz: Eta hau errentagarria da? Zer saltzen da gehien? “Zalantzarik gabe denetik, baina feminismoa eta haur literatura asko saltzen dira”. Kantinean liburu-dendara sartuta, batek pentsa dezake ostatuak sostengatuko duela liburu-denda: “Biek ematen dute –dio Fillatek–, alor biak oso orekatuak dira negozio ikuspegitik: ostalaritzak %65eko mozkin-marjina du eta liburuek %30a”.

Hala ere, zerbait oso argi utzi nahi dute: “Katakarak mantentzen da proiektuaren berezitasunagatik, lan taldearen konpromisoagatik, eta inguruan dugun



Ezkerretik hasita, ARGIAko kazetaria, Aitor Balbas, Hedoi Etxarte, Nerea Fillat, Juan Etxenike eta Izaskun Mata.



sostenguagatik, bestela ezinezkoa litzateke". Fillatek proiektuaren ideia giltzarrietakoa utzi du mahaiaren gainean: "Gune hau erreferentzia bat da, besteak beste beti irekita dagoelako. Izatea espazio bat egunean denbora luzez zabalik egongo dena garrantzitsua da erreferentzia irabazteko, eta ideia hori hastapenetik landu genuen".

BERTAKO 90 LIBURU

Argitaletxea 2016an sortu zuten eta urtean bederzati bat liburu argitaratzen dituzte gaztelaniaz eta sei bat euskaraz. Fillat eta Etxarterekin batera Balbas ari da lanean bertan. Eta kontu garrantzitsua aipatu dute: "Argitaletxea egin dugu liburu-denda izan eta gero". Horrek pista ugari eman dizkie. Saiakera eta narratiba gailentzen dira generoari dagokionez, eta lerroetan feminismoa, historia, Polizia eta hiria nabarmentzen dira. Gaztelaniazkoak liburu sofistika-tuagoak direla dio Etxartek: "Euskarazkoetan malgutasun handiagoa dago,

testu klasikoagoak dira, baina erradikalagoak ere bai, gizartean gaztelaniaz aspaldi landu diren gaiak eta liburuak orain ari gara argitaratzen euskaraz".

Aurten izan dute lehen arazoa argitaratutako liburu batekin, Baionako liburu-denda batean ziren *Putxa zikinak. Sexu langileen eskubideen aldeko borroka* liburu guztie eraso egin baitzuen "talde integrista eta transfobo batek". Poliziaren lerroa ere sakon ari dira jorratzen -laugarren liburua kale-ratuko dute aurki- eta Etxarteren usitez, "batzuetan horrek ere ematen dit errespetua". Eta zer saltzen da? Ahoan bilorik gabe mintzo da Fillat: "Ez, dena ez da saltzen eta, esaterako, feminismoa euskarri garrantzitsuenetakoa da guretzat".

Liburutegian sartu eta ederto ikusten dira liburu horietako asko espreski jarritako erakustokietan. Eta erakustean gaiak beste meloi bat zabaltzen du: zer, non eta nola erakutsi liburu-dendan. Fillat: "Argitaletxe handien aldetik gero

eta presio handiagoa dago haien gauzak ahalik eta ikusgarrien jartzeko, orain dore batekin datoz, mostradore batekin, posterrekin edo prezio jaitsierekin. Aste-roko borroka da, eta ez, guk argi utzi nahi dugu: guk erabakiko dugu zer erakutsi".

Beheko solairuan isiltasuna egin da, liburu-denda itxi dute. Goian solasean jarraitzen dugu, Fillat eta Etxarte berba jario onekoak dira biak, eta galderak eta erantzunak bata bestearen atzetik datoz. Baina nekea sumatzen da airean eta kazetariak oraindik asko jakin nahi du, besteak beste proiektuaren arimaz, barruko antolaketaz, lanaz, langileen bizipozaz... horiek ere proiektuari buruzko informazio klabea ematen dutelakoan. Horretarako langile talde batekin biltzea eskatu die, eta baietz. Asteazkena da gaur eta datorren astelehenean izango da hori.

ARIMA KONPLEXU HORI

Goiz da, oraindik kantina itxita dago eta han batu gara sei lagun: orain arteko Fi-



Ostalaritzako lan hitzarmena dute Katakraken: 1.300 euroko 14 ordainketa urtean, baina oporretan bi aste gehiago hartzen dituzte. Atzean, barran, Juan Etxenike.

llet eta Etxarteri gehitu zaizkie Izaskun Mata, Maitane Unzu, Juan Etxenike eta Aitor Balbas. Mata 2019an hasi zen lanean Katakraken eta gainerakoak hasieratik daude proiektuan. Fillat eta Balbas Eguzki Bideoak proiektuan aritu ziren aurretik –zeinarekin hainbat elkarlan egin zituen ARGIAk–. Etxenike Greziatik zetorren –eta hara itzuliko da laster–, Unzuk 2013an jaso zuen Iruñean proiektura gehitzeko gonbitea, eta Izaskun sasoi hartan Arte Ederrak ikasten ari zen Bilbon. Gasteizera ikastera joanda, zortzi urtez han bizi ostean Iruñeratu zen Etxarte abentura honetara.

Bat datoz guztiak: batzuetan gogorra da, baina badakite zer egiten duten eta oso gustura ari dira Katakraken. El Drogasek bere kontzertuetan behin eta berriz dioen gisan, “*a gusto*” [gustura] laburbildu du tinko Matak: “Ikusten duzu zure lan orduak, diruaz gain, beste zerbait ere ematen dutela. Hiriko elkarreztantza erreminta bat gara”. Balbasen esanetan, “bizitza, politika eta lana, dena uztartzen da hemen; baina gure lagunek ez bezala, bizitza beste molde batez antolatu behar dugu”. Fillaten ustez, “lan honek zentzu handia ematen dio gure bizitzari. Bere konplexutasun guztiarekin, baina zoriontasunetik nahiko gertu egoteko aukera ematen digu”.

“Lagun batek galdetu zidan behin ea nik zertan militatzen nuen –dio Etxenikek–: ‘Nik kafeak zerbitzatzen ditut’,



Nafarroako ardo ekologikoak bakarrik zerbitzaren edo saltzen dituzte.

erantzun nion. Hemen jende mota asko biltzen da eta ikusten dituzu bilerak egiten eta hainbat proiektuz hitz egiten. Ez dute zerikusirik gurekin, baina Katakra erabiltzen dute, orain bideo-klip bat sortzen eta gero emakumeen aurkako indarkeriari buruzko kartelak egiten”. Etxartek ere argi du: “Hemen lan egitea luxu handia da. Bizi garen

munduaren logikan dena dugu kontra. Debeakuta dagoen zerbait egitea bezalakoa da”. “Baina ez ahaztu –gehitu du Unzuk–, lan taldea hemengo hamabost kideak baino gehiago da. Eta bai, gogorra da, hemen asko ematen dugu eta bizitza pertsonalak ere batzuetan sufritzen du”.

Lan profesionala eta militantzia nola uztartu? ARGIAko kazetariari ere ez zaio arrotza egiten galdera. Fillatek hala erantzun du: “Batzuetan sufritzen dugu bai, eta kontraesan hori mahai gainean dago. Gure mugekin, baina horri era kolektiboan erantzuten diogu. Zer da zaintza? Guk elkarren artean egiten dugunetik gertuago dago hemendik kanpo egiten denetik baino”. Baina hamaika arrazoi direla medio, “tartean lankideen aniztasun politiko eta ideologikoa –dio Balbasek–, tentsioak ere sortzen dira, eta horiek akordio orokorren bidez bideratzen ditugu, eta filosofia batekin: ‘bizi eta utzi bizitzen’”.

1.300 EUROKO LANSARIA

Katakraकेको langileek Ostalaritzako lan hitzarmena dute eta denek oinarritzako soldata berdina –1.300 euro hileko eta urteko 14 ordainketa–. Jai egun guztietan kantina itxita dute eta sei opor aste urtean –hitzarmenean baino bi gehiago–. Eta giltzarria den gaia ere aipatzen dute, horizontaltasuna: “boterea ongi banatuta dago”.

Erabakimena hiru geruzatan banatuta dute. Lehenengoan liburu-denda, kantina eta argitaletxea kudeatzen duten lan taldeak biltzen dira esparruka. Bigarrenean kooperatibako biltzarra dago, astero egiten dute lan bilera bat, eta bi astez behin bazkideak ez diren langileek ere parte hartzen dute bertan. Eta hirugarrena asanblada orokorra da: biltzen ditu kooperatiba gehi proiektuarekin buru-belarri ari direnak, haren zorrak berenganatzeraino, adibidez, edo urteko hainbat unetan lan eginez ere bai; beharren arabera, baina oro har lau bat aldiz biltzen da urtean, beti igandetan, egun osoko jardunean. Urtean behin, halaber, Katakrakeko laguntzaile sare zabalarekin beste bilera bat egiten dute. Hodei beltzik ere ez da falta, bestela estralurtarrak lirake eta: ostalaritza gogorra dela diote eta jendeak ez duela nahi sektore horretan aritzea, kostata lortzen dute bost urteko konpromisoa hartuko duen inor.

Langileen esanetan, asanblada nagusia asko indartu zen pandemiaren ondoren eta bertan finkatzen dira aurrera begirako lerro nagusiak. Garai horri garrantzi handia ematen diote kooperatibako kideek, besteak beste azalerazi zuelako proiektuak zituen egiturazko



"26 letra mundua aldatzeko" dio hizki arteko esaldiak.

hainbat akats, alor ekonomikoan edo lan banaketan. ANEL Nafarroako Kooperatiba Elkartearekin –hango bazkide dira– egindako azterketa prozesua goraiatu

dute. Haren ondoren, adibidez, kontabilitatea daraman pertsona lan taldean integratu zuten.

Eta kontabilitatea aipatuta, ezin utzi aipatu gabe hirugarren solairua, ikuskitzunez bideratua. "Milaka euro galtzen dugu harekin urtero eta aretoaren logistikak lana ematen digu", dio normalizatutako etsipenez Etxartek. Urtean 20-40 ekitaldi artean egiten dira bertan. Beste hamaikaren artean, Lucio Urtubia, Julen Madariagak, Silvia Federicik edo PSOEko ministro ohi Carmen Alborch izan dira taula gainean hizlari.

Lantaldea dagoeneko hamargarren urteurreneko putzuan ari da plisti-plasta. Proiektua hazi eta heldu egin da: langileak gustura ari dira, jende kopurua ikusita bezeroak ere bai antza, eta hipoteka Koop-57 banku etikora pasatu zutenetik ekonomikoki ere sendago daude. Hamar urte ez da txantxa eta oraingoz bederen, badute zer ospatu. Katakarak zer den eta zer ez aritu gara bertara egindako joan etorrietan, iraultzaz ere sakon mintzatu gara, baina akaso klabe nagusietakoa dendatik liburuak eramateko salgai duten eta latindar alfabetoa ageri duen poltsa arrosan izkiriatuta dago: "26 letra mundua aldatzeko". ●

Bakterioen mehatxua.
Guztion artean konpontzeko arazo globala.

ERRESISTENTE

Laster telebistan!

ELHUYARen ekoizpena / **Fundación Española para la Ciencia y la Tecnología**
Ministerio de Ciencia e Innovación / Eusko Jaurlaritzaren Kultura
eta Hizkuntza Politika Sailaren laguntzarekin / EITBren eta Apikaren partaidetzarekin

Ekoizle exekutiboa: Garazi Andonegi Beristain / Ekoizpena: Ana Gonzalez Jaka
Muntaia: Xabier Zabala Agirrezabal / Animazioa: Guillermo Roa Zubia
Jatorrizko musika: Haizea Huegun Durán / Argazki-zuzendaria: Eukeni Arriortua Barrenekxa
Gidoia eta zuzendaritza: Bego Zubia Gallastegi

elhuyar
ezagütuz aldatzea

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

GOBIERNO DE ESPAÑA

MINISTERIO DE CIENCIA E INNOVACIÓN

FECYT

eitb

APIKA
LAB

PREMIA BEREZIKO IKASLEEI ERANTZUTEKO BALIABIDEAK, URRI?

EAEan, azken hamarkadan premia bereziko ikasleen kopurua %60 handitu dela eta hasi berri den ikasturterako Pedagogia Terapeutikoko 65 irakasle (PT) gehiago jarriko dituztela iragarri zuen ekainean Hezkuntza sailburuak. Haur horiekin buruz buru aritzen diren hezitzaile eta PTei galdetu diegu, eta diote ikasle-profil ugari mapatik atera dituztela (mapan ez dagoenari ez zaio hezitzaile edo PTrik jartzen), tutoreak zamatzen ari direla eta Berritzeguneak gutxitzeak diagnostikoetan eragin duela.

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ  SHU OTERO

2012an hezkuntza premia bereziekin diagnostikatutako 14.200 ikasle izatetik 2021. urtean 23.800 ikasle izatera igaro dira; Jokin Bildarratz Hezkuntza sailburuak emandako datu esanguratsua da. Premia bereziekin diagnostikatutako ikasleak ikastetxeko mapa deiturikoan sartzen dituzte eta mapan egoteak esan nahi du, ikasle horrek arreta handiagoa behar duen heinean, baliabide pertsonala esleituko zaiola (hezitzailea edota PTA) ikas-ibilbidean eta ikasgelan laguntzeko, curriculum bere beharretara egokitze-ko eta abar. Bada, duela urte gutxi batzuetatik hona, hainbat profil mapatik atera dituzte, premia larrienak baino ez dituzte utzi mapan (desgaitasunak, nahasmen larriak...), eta gainerakoek, berariazko laguntza behar duten ikasleak deiturikoek, ez dute baliabide gehigarririk, tutoreak (berez klaustroak) erantzun behar die ikasle horien beharrei, eta egokitu behar du materiala eta ikas-prozesua bakoitzaren errealitatera. Berariazko laguntza behar duten ikaslearen artean daude, adibidez, ikasteko

“ ”

Ikasle horiek zituzten laguntzak desagertzea atzerapauso itzela da; tutoreak ahal duten heinean saiaturiko dira, baina nekez iritsiko dira, daukaten lan zamarekin

Steilas

zailtasunak dituztenak, dislexia eta abar dutelako, arreta falta dutenak, jarrera arazoak, adimen gaitasun handikoak, hezkuntza sisteman berandu sartu direnak, testuinguru konplexu batean bizi direnak... Kontuan hartu behar da ikasle horien kopurua nabarmen egiten ari dela gora, erreportaje honetarako elkarriketatuta ditugun hezitzaile eta PTen esanetan.

Ondorioa? 25 ikasleko gelan tutoreak (klaustroak) behar anitzei eta arreta berezia behar duten gero eta ikasle gehiagori erantzun behar die ikasgelan, ikas-prozesu gero eta gehiago egokitu behar ditu, eta solaskideek argi dute: batetik, zama agerikoa da, irakasleak maiz ez dira iristen denei egoki erantzutera; bestetik, formazio hutsune handia dute irakasleek, sarri ez dakite hainbat beharri nola erantzun. Praktikan zer gertatzen da? Irakasle ugari PTengana jotzen dutela, lagundu diezaieten, eta joera bat aipatu digu PTetako batek: ikasle horiek PTren bat dagoen gelan sartzea, lagundu dezan (baina PTA, berez, ez dago ikasle horiei laguntzeko, premia berezia duten ikasleekin tutoreari laguntzeko baizik). PT horrek, gainera, susmo garbia du: mapan gero eta premia berezi gutxiago sartuko dituzte, eta gero eta gehiago pasako dituzte berariazko laguntzara, hezitzaile eta PTen esku-hartzetik kanpo. “Ikasle horiek zituzten laguntzak desagertzea atzerapauso itzela da –dio STEILASKO hezitzaileen ordezkariak–; tutoreak ahal duten heinean saiaturiko



dira dagokien laguntza ematen eta ego-kitzapenak egiten, baina nekez iritsiko dira, daukaten lan zamarekin”.

BERRITZEGUNE GUTXIAGO, DIAGNOSTIKO GUTXIAGO

EAEko ikastetxe publikoei zonaldeka berrikuntza eta aholkularitza zerbitzua ematen diete Berritzeguneeak, ikastetxeak akonpainatu egiten dituzte, baina Berritzeguneeak eraldatzea erabaki du Eusko Jaurlaritzak: zentralizatu, fusio-natu eta kopuruan murriztu egin dituzte. Ordainetan, berrikuntzaz arduratuko den figura sortu dute ikastetxeetan: BeAtarra. Kontua da Berritzeguneeak beste funtzio garrantzitsu bat ere dutela beren gain, premia bereziei erantzutea, eta ondorioa berehalakoa izan da: Berritzegune eta pertsonal gutxiagorekin, ikastetxei premia berezien arloan ematen dieten zerbitzua murriztu egin da.

Haurra ikastetxeak behatzen du lehengo, eta premia bereziak antzemanegero, Berritzeguneko aholkulariak behatzen du, profila zehazten du eta haren oniritziarekin sartzen da mapan ikaslea. Berritzeguneeak murrizteak, ordea, Berritzeguneko aholkularien presentzia asko gutxitzea ekarri duela diote elkarrizketatu ditugun PTeak: “Duela pare bat urtera arte, hamabostean behin etortzen zen Berritzeguneko erreferentea, eta bilerek jarraikortasuna zuten, azken ikasturte osoan bi bilera baino ez ditugu egin, bata hasieran, aurkezpen gisa, eta bestea martxo aldera. Bigarren bileran, presa handiarekin egin ziren diagnostikoak”, kontatu digu solaskideetako batek. Zehaztu behar da diagnostiko klinikoa profesional medikuek egiten dutela (psikiatreek, neurologoek...) eta ikastetxean eta Berritzegunean ikasleari egiten zaion diagnostikoa hezkuntzaren esparruari lotutakoa dela, dituen ahulgune eta indarguneeak ongi identifikatu eta horren arabera hezkuntza plana egiteko.

Bi emaitza utzi ditu horrek. Batetik, eskoletako aholkulariei autonomia eta ardura handiagoa eman zaie, behaketa eta diagnostikoa egiteko orduan. Lehen filtro txikia pasatzen bazuen, orain askoz handiagoa da egin behar duen behaketa eta horrek ere lan zama handituko duela ohartarazi dute batzuek eta besteek. Ikastetxeko aholkulariak diagnostiko egokia egiteko gai direla erantzun digu PT batek, beste batek aldiz uste du oro har ez daudela Berritzeguneko psikopedagogo profesionalak bezain es-

“ ”

Duela pare bat urtera arte, hamabostean behin etortzen zen Berritzeguneko erreferentea, eta bilerek jarraikortasuna zuten, azken ikasturte osoan bi bilera baino ez ditugu egin

Pedagogia Terapeutikoko irakaslea

pezializatuta, eta horrek eragina izan dezakeela egindako diagnostikoan. Are, ikastetxeetako aholkulariek formakuntza nahikoa ez dutela ohartarazi du ELAk: “Hezkuntza Sailaren asmoa izan daiteke zeregin honetan eskoletako aholkulariak ahalduntzea, baina momentuz eta dakigunaren arabera aholkulari hauek behar bezala formatu eta beharrezko tresnak emateko baldintzak ez da sortzen ari Saila”.

Bestetik, ikastetxe guztietan behaketarako zerrenda luzeak egon ohi dira, Berritzeguneko profesionalak oniritzia noiz emango zain. Berritzeguneean eraldaketak erritmoa moteldu du, bilerak murriztu, eta haren diagnostikorik gabe, ikaslea ez da mapan sartzen. Eta mapan sartu gabe, baliabideak ez dira iristen. Dena den, baliabideak ikasle kopuruaren eta ratioaren arabera banatzeko joera indartzen ari da Eusko Jaurlaritza, eta bide horri helduz gero, ikasle kopuruagatik ikastetxeari dagokion hezitzaile eta PTez gain berriki martxan jarri duten zaugarritasun indizea kontuan hartzea eskatu dute solaskideek, baliabide estrak jar daitezen zaugarritasun indize altua duten ikastetxeetan.

PT ETA HEZITZAILE, BALIABIDE NAHIKOA BIDERATZEN AL DA IKASLE HAUNTZAT?

Mapan dauden premia bereziko ikasleek izan ditzakete, batetik, eskolan behar duten laguntza jasotzeko hezitzaileak, edota bestetik, ikas-prozesuari lotutako laguntza eta egokitzapen metodologiko eta curricularretan esku hartzeko PT irakasleak. Hezitzaile, PT, tutore eta abar, elkarlanean eta koordinatuta lan egitea izan ohi da onena.

“Gure ikastetxean, iaz bi PT eta erdi genuen, eta aurren, ikasle kopuru bera-rekin, bi PT ditugu. Guztira 65 PT gehiago jarri dituztela? Izango da, baina ez dit koadratzen, gure inguruan baliabideak ez dira handitu eta izatekotan gutxitu egin dira, edo eskola batetik kendu eta beste batean jarri dituzte”, adierazi digu elkarrizketatu dugun PTetako batek, eta gainerako solaskideen sentsazioa ere antzekoa da, baina sentsazioak sentsazio, datuei erreparatu behar diegu, eta 65 PT gehiago esleitura ere “baliabide gehikuntza oso eskasa” dela iritzi dio ELAk. Sindikatuak duen informazioaren arabera, ikasturte honetan eskaini diren PT eta hezitzaile lanpostuetan lanaldi osokoak gutxitu eta partzialak gehitu egin dira: “Alegia, langile gehiago egonda ere, kopurua oso eskasa da dagoen premia bereziko ikasle kopuru gehigarriarekiko, eta gainera, lanaldi partzialekoak dira, beraz enplegua sortu baino gehiago enplegua prekarizatzen ari da Hezkuntza Saila”.

STEILASentzat ere, ez da nahikoa, “inondik inora ere”. Positiboagoa da LAB: borroka eta negoziaketak tarteko, aholkulari, orientatzaile eta PT figurak indartu dituztela nabarmendu dute, eta hezitzaileei dagokionez lanpostu kopurua handitu dela eta “aurki” guztiak egonkortzea lortuko dutela.

Kontuak kontu, baliabide banaketa ikasturte hasieran egiten dela azpimarratu digute solaskideek, eta behin ikasturte hasita ez dagoela baliabide horiek aldatzeko malgutasunik. Horrek esan nahi du ikastetxeak, dituen baliabideen arabera, tetrisa egiten duela, eta ondoren, ikasturte erdian sartzen den ikasleak beharra baldin badu (eta maiz beharra izan ohi du ikasturte erdian sartzen denak), sarritan ezin duela baliabide gehigarririk lortu, beraz aurretik egindako tetrisa berregin behar da, non-baitetik murriztuz.

Profesionalek ikaslearekin duten ordu tartea ere mahai gainean jarri du STEILASek, ordu kopurua “beti azpitik” zehazten dela iritziak: “Ikasle bakoitzak jaso beharreko arreta orduak ez dira nahikoak izaten”. Premia bereziko ikasleek kasuan, intentsitatea erabiltzen da adierazle gisa eta intentsitate bakoitzak arreta-ordu tarte batzuk finkatzen ditu (ez ordu kopuru zehatz bat): “Intentsitateak urte askoan ez dira berrikusi eta ordu tarte zabalak barne hartzen dituzte, tarte horretan azpitik jo ohi da laguntzaileak jartzerakoan”.



PEXELS PIXABAY

Ikastetxeak, dituen baliabideen arabera, tetrisa egiten du ikasturte hasieran, eta ondoren, ikasturte erdian sartzen den ikasleak beharra baldin badu, maiz ezin du baliabide gehigarririk lortu, beraz, nonbaitetik murriztu behar izaten du.

Azaldu dute, baita ere, hainbatetan gertatzen dena: nahiz eta PTak ikasgela arruntan lan egitea den onena (inklusiorako, besteak beste), ikasleak behar oso espezifikoak dituelako edo PT hori ez delako heltzen dituen ikasle guztiei arreta ematera, talde txikitara ateratzea beharra duten ikasleak, eta bakoitzak hiru orduko arreta pertsonalizatua badu esleituta, hirurei batera ematen die arreta, eta hortaz ez dira hiru ordu eskusibo, hiru ordu partekatatu baizik, “benetan dagokien laguntza lausotuz”.

IKAS MAILAREN ARABERA, EZBERDIN

LABetik gogoratu dute laguntza premia duten ikasleek baliabide gutxiago izaten dituztela Derrigorrezko Bigarren Hezikuntzatik aurrera. Ikasketetan gora egin ahala, azken finean, autonomia garatzeko ikasle hauek ere gero eta autonomoago izan daitezten bilatzen da, baina denentzat ez du balio ekuazioak. Berriki azalera-tu genuen ARGIAN, garun-paralisia eta %87ko desgaitasuna duen ikasleari ordu-ra arte zuen laguntzaren erdia jarri diotela Lanbide Heziketara jauzi egin duenean, autonomia garatzeko onuragarri izango

zela argudiatuta, baina ezinezkoa zaiola laguntza erdiarekin aurrera egitea.

Praktikekin antzera gertatzen dela kezu dira STEILASen: “Ikasle gorren kasuan, adibidez, Lanbide Heziketako bigarren mailara igarotzean praktiketara joaten dira eta badirudi tailerlean daudenean ez dutela inongo laguntzarik behar; Zeinu Hizkuntzako Interpreteta etxera bidali eta ikasleak interpretetik gabe uzten ditu martxo aldera Hezikuntza Sailak”.

PT BIHURTZEN DIREN HEZITZAILEAK

Hezitzaileak bizitzen ari diren egoera aldrebesa nabarmendu du STEILASko ordezkariak: ikasturte batean behar diren hezitzaileak esleitzeko, plaza egonkorra duten langileetatik tiratzen du lehenik, alegia Lanpostuen Zerrendatik, eta Zerrendako guztiak ikastetxetan banatu ostean, faltan dituen hezitzaileak kontratatzen ditu ikasturte baterako, “behar puntualak direla esanez”. Espainiako Lan Erreformak kontratu mota hori baimentzen ez duela-eta, Lanpostuen Zerrendan langile gehiago sartu behar izan zituzten joan den ikasturtean, baina are gehiago behar zituztela-eta, Lan-meta-

keta formula erabiliz sei hilabeteko kontratuak egin zituen. Hala, apirila-maizta aldera, kontratuak bukatu zirenean, luzatzea eskaini zien Eusko Jaurlaritzak, baina hezitzaileek eskatu zuten luzatu ez, lanpostuak egonkortzeko; horri uko egin eta PTak kontratatuta zituen Jaurlaritzak, soluzio modura: “Lan postu jende pila bat daukagu zain, hezitzaile pila bat, baina arazoa konpondu beharrean nahiago izan dute PTak kontratatuta hezitzaileen lana egin dezaten”.

Tinko amaitu du solasaldia: “Premia bereziak dituzten ikasleen egoera larria da, behar dituzten baliabideak esleitu ez ezean oso zaila baitute aurrera egitea. Maiz, laguntza jaso beharrean oztopoak jartzen zaizkie eta hezikuntza- eta berdintasun-eskubideak urratzen dira”. Duela urte batzuk, eskola benetan inklusiboa izateko bidean oraindik dauden hutsunez idatzi genuen ARGIAN, *Premia bereziko ikasleak asetzen ez dituen hezikuntza erreportajea* (2664. zenbakian). Afera honen guztiaren atzean dagoen errealitate bati eskaini genion artikulua: familia askok ikasturtero errepikatu behar duen borroka amaigabea, seme-alabak behar duen laguntza eta arreta jaso dezan. ●

MARCOS
okindegia

**Benetako
antzinako ogia**

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)



aholkukoop
PISKARIA KONTABILIA LABORTZA

**EKONOMIA SOZIAL
ETA ERALDATZAILEAREN
BIDEAN DOAZENEN
AHOLKULARITZA**

Ametzagaina 17, behe / Donostia
943 005 680 aholku.eus

Pirozenoa

Su Aroan murgiltzen ari gara

Suak geroz eta leku gehiago hartzen du albisteetan. Azken urteetan sute askok partida irabazi digu, planeta osoan zehar. Egungo suteak ez dira lehengoak bezalakoak, erasokorrakoak dira eta planeta sakonki aldatzen ari dira: Pirozenoa dei genezakeen garaiaren atarian jarri gaituzte. Suteak gizakia ordeztzen ari dira paisaien eskultorearen rolean.

 VÍCTOR RESCO DE DIOS

Artikulu hau *The conversation*-ek argitaratu du eta CC by-sa lizentziari esker ekarri dugu.

Jarraian azalduko dugu zer aldatu den, gaur egungo suteek Lurrari zenbateraino eragiten dioten eta egoera nola irauli daitekeen. Baina, aurretik, gogoratu behar dugu ez zela beti horrela izan, duela ez askora arte sua kontrolatzeko gai ginela. Sua izan zen gure lagun nagusia.

SUAREN ETXEKOTZEA

Suaren etxekotzea funtsezkoa izan zen gure espeziarentzat, bai eboluzioari dagokionez, baita gizarte modernoak garatzeko ere.

Suaren konkistarekin batera, gizakiak garatutako lehen teknologietako bat suarena izan zen. Suaren kontrolarekin paisaiaren kudeaketa iritsi zen, eta janaria prestatzen ikasi genuen. Hala, elikagaien nutrizio-balioek gora egin zuten, eta digestio denborak eta osasun arazoek behera. Janaria prestatzeko aukerak gure garunaren tamaina handitu zuen, eta, beraz, gure arrazoi-tzeko gaitasuna.

Historiaren erlojua azkar aurreratuz gero, iraultza industrialarekin egin-

go dugu topo, su-iraultza izan zena. Sugarrak kontrolatzen ikasi genuen erretzetik energia ateratzeko, eta existentzia erraztu ziguten makina, motor, tresna eta tramankulu mota asko asmatu genuen.

PIROZENOA: SUAREN GAINEKO KONTROLA GALDUTA

Baina iraultza industrialean erregaiz aldatu genuen. Industrietako suak ez ziren erregai biziz, begetalez, elikatzen; erregai fosilez eta litikoez baizik.

Paisaia fosilen errekuntzak atmosfera aldarazi zuen, eta klima berotzen hasi ginen. Mendiak bertan behera uzteak lurraren fisionomia aldatu zuen, eta orain biomasa pilatzen ari da. Bero handiagoa eta erregai gehiago: suteetarako egur gehiago.

Eta oraingo suteak ezin ditugu kontrolatu, gure kontrolpetik kanpo daude. Hamarkadak daramatzagu sugarrak mendean mantentzen. Basoetan erretako azalerak behera egin zuen, suteak itzaltzeko estrategia berriak garatu zirelako, formazioan hobekuntzak izan

zirelako, baita suteak itzaltzeko bitarteko gastua asko handitu izanari esker ere. Baina hori guztia eten egin da orain.

Itxura guztien arabera, inflexio puntu baten aurrean gaude. Sua konkistatu zenetik, agian lehen aldiz haren kontrola galtzen ari gara. Baso-suteek geroz eta maizago ihes egiten dute, eta haien kontrolen atzerapausoak ematen ari gara; orain suak konkistatzen gaitu gu.

Sua menderatzeak Antropozenoa, Gizakiaren Aroa, ahalbidetu zuen. Bere kontrola galtzeak Pirozenora garamatza, Suaren Arora. Aro horretan sua izango da, eta ez aitzurra, gure paisaien modelatzaile nagusia.

MUNDUA ERALDATZEN DUTEN SUTEAK

Sute berrien boterea izugarria da. Duela hiru urte Australiako hego-ekialdean gertatu ziren giga-suteek basoen %21 irentsi zuten, ozono-geruzaren zuloa handitu zuten eta klima hoztu zuten. Hori gertatu zen ke zutabean esekitako partikulek, aerosolek, eguzki izpien sarrera blokeatu zutelako. Ozono-ge-





REUTERS

ruzaren suntsipenak korrante atmosferikoak aldatu zituen. Hala ere, ondorio horiek iragankorrak izan ziren eta hila-bete gutxi batzuk iraun zuten.

Aerosolak azkenean lurrera erori ziren, zati handi bat Ozeano Antartikoan, eta algen gehiegizko hazkuntza eragin zuten. Aerosolek mikronutrientek dituzte, burdina edo nitrogenoa kasu, eta horiek funtsezkoak dira fitoplanktonerako. Horrela, Australiako suteek Ozeano Antartikoa suspertu zuten.

Planetan dituen ondorioez gain, Australiakoe bezalako giga-suteek eragin nabarmena dute osasunean, ekonomian eta hezkuntzan.

Baina hori ez da bakarrik Australian gertatzen. Munduko leku askotan, Atlantikoaren eta Ozeano Barearen itsasertzean, antzeko prozesuak gertatzen ari dira. Eta bai, egia da betidanik izan direla gure kontrolerik kanpoko sute katastrofikoak, baina gaur egun etengabe ari gara horiek bizitzen.

SUTE BERRIAK ETXEKOTZEN

Pirozenoaren bidetik aldentzeko aukera dugu oraindik. Europako Itun Berdeak eta nahitaezko trantsizio energetiko eta ekologikoak esparru bat eman

digute Pirozenoa geldiarazteko politika eraginkorrak garatzeko. Gainera, zientziak eta ingeniartzak hori lortzeko iradokizun eta jarraibide zehatzak ematen dizkigute:

- Abeltzaintza estentsiboa laguntzea. Larre-erretzeak sustatuz eta babestuz, eta artzainei aholkularitza eskainiz egiteko horretan. Artzaintza aliatu handia da erregaiaren jarraitasuna apurtzeko, sutearen intentsitatea murrizteko eta sua itzaltzeko aukera emateko.

- Suaren dinamika naturala birsortzea. Su teknikoak sartzeari bidera, intentsitate txikiko erreketen bidez. Kalterik eragiten ez duten erreketak dira, printzipio ekologikoetan oinarritutako ingeniartzak lanak.

- Suebaki berdeak garatzea. Hiri-inguruneetako periferiek landareri gabeko zerrenda zabalak izan beharko lituzkete, hedadura handikoak. Baina zehatzak mantendu daitezke, nahiago bada, ureztatze-sistema jakin batzuk ezarrita. Garabien gainean muntatutako aspertsoreak dira, landaredia arazturiko urekin busti eta suaren hedapena geldiarazten dutenak.

- Basoen oihanartea gutxitzea. Zuhai-

tzak moztu eta haien osasun-egoera hobetzea esan nahi du. Zuhaitzak mozteak ez da basoa soiltzea. Alderantziz, zuhaitzak modu iraunkorrean mozteak, erregai kopurua murriztuz, ezkutu handia da mendiak soilduko duen sutetik babesteko.

- Nekazaritza-jarduera indartzea. Suteen aurkako balaztarik eraginkorrena laboreak dira. Landa-eremutik alde egitea ez da iraganeko kontua, gora egiten jarraitzen du neurrigabeko tasetan. Paradoxikoa da hori, egunero jaten jarraitzen dugulako. Beraz, lehen sektorea behar dugu.

Gizakirik gabeko landa-eremu abandonatuak edukitzearen lehen emaitzak ari gara ikusten. Antropozenoan, azken 12.000 urteetan, gizakiak baso tropikalaren %90ean eta baso mediterraneo eta epelen %95ean bizi izan ziren, baita haiek baliatu ere. Baina duela gutxi mendia utzi eta bizitza hirietan kontzentratu izana Pirozenoaren sugarrak ari da elikatzen.

Paisaia biziak behar ditugu, jendearen bizileku direnak. Hori da modu bakarra suak okupa ez dezan gizakiak menditik alde egiten duenean libre uzten duen espazio ekologikoa. ●

HAZIEN PIRATAK ETA LAPURRAK



MARTA BARBA GASSÓ

U daran jasotzen da hazi mordoak baratzean, izan udako fruituak biltzearekin batera jasotzen ditugunak (tomate, piper, kalabazin, edo luzokerren haziak kasu), izan neguko barazkiak loratzen edo lehortzen utzi ostean datozenak (esaterako, azenario, erremolatxa, baba, ilar, edo porruen haziak). Baratzea alaitu, dibertsifikatu, eta edertu egiten diguten loreak zimurtzean eta lehortzean ere, altxortxoak dakarkigute; hurrengo urtean baratzea berriz loratzekotan beharko ditugun haziak, alegia.

Aste honetan ilena haziak bildu ditut. Ilenaren loreak pixkanaka lehortzen doaz, eta hazi denak hartzekotan, txandaka hartzen dira. Duela bi aste jada zenbait hazi bildu nituen, eta halako batean ontzian jasota nituen gutxi batzuk lurrera erori zitzaizkidan. Han utzi nituen, eta aste honetan ernamuindu eta lehenengo hostoak botatzen hasiak direla ohartu naiz.

Fruituak edo barazkiak ez baditugu biltzen, haziak lurrera doaz. Batzuetan, denborarekin batera ustelduko litzaitekeen fruituaren barruan (kalabazak,



Ilenaren haziak lehortutako loretik askatuta erortzen dira lurrera.

adibidez); beste zenbaitetan, leka lehorren baitan gordeta (ilarrak edo erre-fautxoak, kasu); eta, beste hainbatetan, hazi bera lehortutako loretik askatuta (ilenak, esaterako). Espeziea eta barietatea toki batera ondo egokituta badago, eroritako hazietatik baliteke hurrengo urtean landare berriak jaiotzea. Baina guk haziak biltzen ditugu, ondo kontserbatzeko eta hurrengo urtean, nahi dugun tokian eta garaian, erein eta landatzeko. Horretan datza nekazaritza, haziak bildu eta berriz ereitean. Eta hazien kontserbaziorako gakoetako bat temperatura da. Epela edo hotza behar dute ondo kontserbatzeko.

Bada, aurrekoan lurrera eroritako ilena hazietatik etorritako landaretxo berriak ikusi nituenean zalantza egin nuen. Haziak biltzen ditugunean, hoztu baino, ez ote ditugun ostu egiten. Landareari ebasten. Lurrari osten. Gizakia eta kultura lapur eta, lapurreta nekazaritzaren oinarri, bat-batean. Gure lapurreta txikia da, ados. Haziak elikagaien ekoizpenaren lehenengo katebegia badira, nekazaritza lapurreta fundazional batean

oinarrizten da, ados. Eskala kontua da, orduan, afera?

Ez dezagun ahaztu. Hazien lapurretan aditu eta arituak dira, batez ere, bioteknologiaren arloko transnazionalak. Vandana Shivak aspaldi erabili zuen "biopirateria" terminoa enpresa handi horien lapurreta izendatzeko. Hazien lapurreta handia, antolatua, egiturazkoa. Lapurretaren balorazio etikoa, orduan, eskala kontua da. Piratak ere ez dira beti ipuinetako gaiztoak izan, eta pribatizazioari eta monopolioei aurre egiteko zenbait bide nahiko "pirata" izan dira, eta badira. Eskala kontua da, ados. Baina, noiz pasatzen gara piratak izate-tik lapur handiak izatera? Gizakiak lapur eta nekazariak pirata, ez dezagun ahaztu haziak bildu eta gordetzen ditugunean, landareei, lurrari, txoriei eta gure inguruneari, nolabait, neurri batean, zerbait osten diegula. Edo "maileguan hartu". Hau nola eskertu eta itzuli gure esku geratzen da, elkarrekikotasuna ez baita soilik gizakion arteko harremanetara mugatzen. Haziak bildu, gorde eta zaintzeko lana, beraz, ardura handikoa. ●

DABILEN ZUHAITZA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Zerk bereizten ditu landareak? Landareek hiru ezaugarri dituzte nahitaezko. Gehiago ere badituzte, noski, baina hiru horiek gabe ez dira landare. Lehena, bere burua elikatze behar duten energia ia dena berez sortzen dutela: hostoetan, adarretan, zurtoinean... berde dituzten zati guztietan fotosintesia egiten dute, hau da, argiaren energiarekin janaria sortu. Landarea, benetako landarea guk ikusten ez duguna da, lurpekoa, eta lurrazalean gora agertzen dena eguzki energia baliatzeko eguzki-panelak dira, hostoak, eta ugaltzeko haziak. Berde beharrean beste kolore batzuetako landareak ere badira: gorri, hori, laranja eta abar. Berdearenean klorofilak bideratuko du lan hori eta beste koloreetakoetan dagokion pigmentuak: antozianina (gorria edo urdinxka), karotenoa (laranja), xantofila (horia)...

Landareen bigarren ezaugarri nabarmena da bizi diren artean nahitaez hazi egin behar izatea. Bizitza motza izan daiteke, egun gutxi batzuetakoa, edo luzea, milaka urtekoa, bada bizitza osoan handitu egingo da. Hazteak izerdia gora eta behera eramateko tutu berriak sortzea dakar, bizitzari heltzeko behar-beharrezkoak. Hazteari uzten dionean hil egingo da. Hori ere animalio-



Ekueadorren bada mugitu egiten den palmondo bat, *Socratea Exorrhiza*.

kiko begitango alde da. Eskerrak gure hazkundeak muga daukan...

Hirugarren adierazlea ez mugitzea da. Landareak ez dira mugitzen. Gaur egun esaera hori zalantzan jarria da, esaten da mugitzea ez dela toki bate-tik bestera joatea soilik, eta landareek, noski, bestelako mugimendu ugari egiten dute: kiribildu, hostoak alde bate-tik bestera okertu eta abar. Toki batetik bestera ez mugitzeak bere alde txarrak

baditu: egarri denean, bero denean, izotza ari duenean, gose denean, eguzkiak erre egiten duenean, sua datorrenean... gertatzen dena gertatzen dela han egon behar, egonlandarearen egonarrria, zintasuna. Guk animalio ez dugu, ezta gutxiagorik ere, pairakortasun horren antzik. Bertan eutsi eta datorkion guztia nozitu eta ahal den ondoena eraman behar horrek landareak jakintsu egin ditu. Gure aldean milioika urte gehiago bizi izanak ere azkarrago egin ditu. Hasteko lurpeko landarea, benetako landarea ederki garatu eta egokituko dute bere premien asetzera; orokorrean esan ohi da ikusten duguna baino ikusten ez duguna gutxienez bost aldiz handiagoa dela, baina ehun aldiz handiagoa ere izan daiteke. Eta liburu oso bat osatzeko adina trikimailu sortu, ondu, findu, doitu eta zorrotzu dituzte: belaunaldiz belaunaldi benetako etengabeko hobekuntza da. Gaur bertan ere horretantxe ari dira inguruan dituzun milioika landareak, denak.

Bada bat bada toki batean bizitzera, egotera errenditzen ez dena. Ezin geldirik egon! Ekuadorren bada mugitu egiten den palmondo bat, *Socratea exorrhiza*. Palmondo ibiltaria esaten diote. Lur gainean enborrean gora sortzen ditu sustraiak, *exorrhiza* izenak horixe dio. Sustraiok zango-luzeak dira eta bermatze puntuak ematen dizkiote landareari. Harantz edo honantz haz dadin, janari, argi eta nahi duenaren bila. Gure moduan. ●

HERBARIA

ARTZIBARKO HERBARIOA OSATZEKO BIDEAN, LOREEKIN JOLASEAN



GARAZI ZABALETA

2021eko udaberri inguruan hasi zen Kattalin Barber Gutierrez nafarra bailarako loreak biltzen eta identifikatzen: “Artzibarren jaioa naiz, beti izan ditugu loreak eta natura ondoan, baina ohartu nintzen duela gutxi arte ez niela arreta handiegirik jarri”. Konfinamendu garaian, baina, herrira gehiagotan joaten hasi zen eta inguruan egiten zituen ibilaldietan ikusten zituen loreekiko interesa piztu zitzaion. Horiek biltzen hasi zen gero, eta ideia bat bururatu zitzaion: zergatik ez bailarako herbario bat osatu?

LOREEN BIDEZ BAILARA EZAGUTZEN

Biologia, botanika edo zientzietako ikasketarik gabe, herbarioa osatzea prozesu konplexua baina polita izaten ari dela onartu du Barberrek: “Zaila da loreak identifikatzea, izen arrunta ezagutzea, izen zientifikoa, nola desberdintzen diren... baina, aldi berean, mundu oso bat ireki zait poliki-poliki”. Argi du gazteak berea ez dela biologiako ikasleek egiten duten herbario zientifikoa izanen, bestelako zerbait dela: “Atlas moduko zerbait, agian?”, galdetu du. Kontua da, bere inguru eta bailara beste modu batean eza-



gutzeko aukera zabaldu diola prozesuak.

Momentuz, 100 bat lore ditu jasoak Barberrek, bakoitzaren euskarazko eta gaztelaniarazko izenarekin. “Loreak bildu, prentsatu, identifikatu eta sailkatu egiten ditut”. Identifikazio horretarako liburuak eta aplikazioak erabili ditu, baina zuzenean bailarako jendeari galdezka ere aritu da, bertako izenak ere jasotzeko. “Udaberri loreari, adibidez, hemen, arrantion esaten zaiola ikasi dut, eta Zaraitzun, berriz, basantxurro”, dio.

KOADROAK, RISOGRAFIA ETA ZIANOTIPIA

Behin loreen eta herbarioaren munduan murgiltzen hasita, bestelako gauzak probatzen hasi zen artzibartarra: “Prenstutzen nituen loreekin laminak egiten hasi nintzen, lagunentzako koadroak, eta horrelakoak”. Azaldu duenez, prozesu nahiko luzea da prentsatu eta lehortzearena: loreak bildu, aukeratu eta prentsan sartzen ditu kartoi eta egunkari paperekin inguratuta. Lodieraren arabera, bertan egon beharreko denbora aldatu egiten da, baina hiruzpalau aste izaten ditu, hiru edo lau egunean behin paperak aldatuz.

Lagunei ez ezik, hurbileko jende gehiagori ere artelanak gustatu eta enkarguak egiten hasi zitzaizkion orduan. “Bere txikitasunean, baina harrera ona izan dute lanek, eta hortik, loreekin beste teknika artistiko batzuk erabiltzen ere hasi naiz”, gehitu du. Risografiak eta zianotipiaz hitz egin digu, esaterako. Serigrafiaren eta fotokopiaren artean lego-keen inprimatzeko teknika modukoa da lehena, eta bigarrena, berriz, argazkien negatiboak urdinean egiteko prozesu fotografikoa. Hainbat teknikarekin probak egitearekin batera, aurrera jarraitzen du gazteak herbarioaren sortze prozesuan ere: “Arbola festibalaren barnean, orain arteko herbarioaren erakusketa jarri genuen hemen bertan, Artzibarren, eta polita izan zen”, amaitu du. ●



endanea
MÁS QUE UN GARDEN

943 64 17 10
www.endanea.com

Zaindu
intsektuak

Izurriteei kontra egiteko produktu ekologikoetan aukera zabala dugu, baita intsektu lagungarriak zaintzekoak ere.

Online denda



Orain gure produktuak
ADUNA GARDENEN
ere

TEKNOLOGIA BURUJABETZA



Nextcloud: gure datuak babestuago

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Nextcloud. Hori dut aste honetako gaia. Zu agian, irakurle, ni baino aurreratuago ibiliko zara teknologia berrietan eta software librearen kontuetan, eta ezaguna egingo zaizu izena eta izana. Nik zerotik hasi behar izan dut informazio eske, oinarri-oinarritik. Baina ez dut uste bakarra izango naizenik eta niri Eli Pombo lametza komunikazio eta teknologia enpresako –ARGIA ere parte den Ametzagaiña taldeko enpresentako bat– arduradunak azaldu moduan kontatzera nator albiste.

Hiruzpalau urte izango dira lametzan teknologia burujabetzaren aldeko apustu kontzientea egiten dutena. Horren barruan sartzen da software librearen erabilera lehenestea, eta partida hori jokatzen du Nextcloud-ek. Software libre hau enpresa eta erakundeetan aplikatzeko lanetan buru-belarri dabil lametza. Zer da, ordea, zehazki Nextcloud? Modu oso sinplifikatu eta ulergarri batean esateko,

Google Drive moduko bat da, datu eta dokumentuen biltegi bat. Baina hori baino gehiago. Drivek ez bezala, bere baitan baititu bulegoko hainbat funtzio kudeatzeko baliagarri zaizkigun hainbat modulu; hala nola, egutegia edo bilera telematikoak egiteko aukera. Eta bezeroaren beharretara modu malguagoan egokitzen daki, pluginen bidez softwarean aldaketak egiteko aukera eskaintzen baitu eta hala, neurrira egindako garapenak lortu.

Informazioa boterea dela badakigu ere, gure informazioa nondik nora dabilen jakitea ez da erraza garaitan; eskuetatik ihes egiten digu, eman egiten diegu eta gure datuekin betetzen dute sabela eta sakela. Nextcloud-ekin norbere datuen kontrola norberak izaten jarraitzen du. Hori da lametzak balorean jartzen duena eta enpresa eta erakundeei eskaintzen diena. “Ez da erraza izaten software librearen gaian sartuta ez dagoen jendeari azaltzea zer abantaila eskain-



AZALAREN INTRAHISTORIA

Gernikatik Donapaleura

Bat baino gehiago jabetuko zen ARGIAren joan den asteko azalak zein antzekotasun duen Gernikako Juntetxean dagoen Francisco Mendietaren 1609ko margolanarekin, hein batean horretan oinarritu baita Xabier Sagasta ilustratzailea. Francisco V.a Katolikoaren 1876ko Gernikako zin egitea irudikatzen du margolanak, eta lehen aldia da, Europako artearen historian, emakumeak gertaera politiko batean margotzen direna, sinbolikoki bada ere –Bizkaiko herriak ordezkatzeko dituzte–.

Donapaleun 1523an egindako Nafarroako Estatu Nagusien iruditegiari ekarpena egin nahi izan diogu azal honetan, emakumeak, nekazariak, herritarrak historiaren ertzetatik lehen planora ekarrita.


tzen dizkion, orain arte erabili duenaren ondoan” azaldu du Pombok, “baina datuen babesaren gaiak geroz eta jende gehiago kezkatzen du eta segurtasun horrek erakartzen du gehien”, jarraitu du.

AURTEN PARTNER

Partner ofizial figura hartu du 2023an lametzak eta honekin zerbitzu profesionalagoa eskaintzeko aukera duela azpimarratu dute, “laguntza tekniko ofiziala duena eta erabilera profesional baterako beharrezko berme teknikoak eskaintzen dituen”.

ARGIAko lantaldean jadanik eguneroko lan tresna moduan erabiltzen dute Nextcloud; eta Erretereriako Udala edo Ameztoi Anaiak bezalako enpresa eta erakundeek ere eman dute pausoa. Iametzaren laguntzarekin egin dute al-daketa. Zergatik ez egin apustua? Informazio gehiago nahi baduzue: www.nextcloud.eus ataria kontsultatu. ●

Egile eskubideak alkoholetan



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Paris, 1847ko martxo. Gau batez, Café des Ambassadeurs local ezagunean musika zuzenean jotzen ari ziren, beste hainbatetan bezala. Entzuleen artean Ernest Bourget, Paul Henrion eta Victor Parizot zeuden, hirurak musikariak, beren sormen lanaz bizitzeko borrokan ari zirenak. Bourgetek, esaterako, 33 urte zituen ordurako, eta oraindik ez zuen lortu bere karrerak gora egitearik; gerora, besteak beste Jacques Offenbachentzat libretoak idatziko zituen.

Hirukotea konturatu zen Gabriel etorbideko kafetegi ezagunean jotzen ari ziren piezetako batzuk haiek sortuak zirela. Haiek konposatutako musikari esker, zuzenean jotzen ari ziren interpretatzailerik beren lanagatik ordainduko zieten. Lokaleko arduradunak ere dirua jasotzen ari ziren, musika emanaldien bidez kontsumitzen zuen publikoa erakartzen zutelako. Konpositoreek, aldiz, ez zuten libera bakarria ere jasoko.

Horregatik gau hartan, beren lanagatik ordainik jaso ezean, kontsumitutako edariak ez ordaintzea erabaki zuten, bigabekeria nolabait arintzeko. Café des Amassadeurseko jabeak ordaindu gabe alde egin zuten konpositoreen aurkako salaketa jartzea erabaki zuen, eta auzia epaitegietara iritsi zen.

Epaiketa hiru musikagileek irabazi zuten. Eta edari batzuk ez ordaintzea baino askoz gehiago lortu zuten. Eztabaida zabaldu eta musika sortzaileak antolatzen



Ambassadeurs: Aristide Bruant, Henri Taoulouse-Lautrec (1882) eta *Kafe kontzertua Les Ambassadeurs-en*, Edgar Degas (1877). Bi artistek egile eskubideen jatorrian dagoen kafetegi ezaguna margotu zuten.

hasi ziren. Handik lau urtera, 1851n, Société des Auteurs, Compositeurs et Éditeurs de Musique (SACEM) sortu zen, musikarien egile eskubideen kudeaketa kolektiborako lehen elkarte. Mende luzez musikagileek mezenasgoari edo enkargu jakinei esker soilik lortzen zuten beren talentua bizibide egitea, baina 1847ko gau

batez ordaindu gabe utzi zituzten edari horien ondorioz, sormen lanak merezitako aitortza eta ordain ekonomikoa izango zuen handik aurrera... sormena aitortzearen eta partekatzea debekatzearen arteko muga, eskubideen defendatzaile eta finantza espekulatuzaile izatearen artekoa, lausotzen hasi zen arte. ●

Haur meatzariaren zapata

Dürrenberg-eko (Austria) Burdin Aroko gatz meatze batean indusketa lanak egiten ari zirela, larruzko zapata bat aurkitu dute. 2.000 urte inguru ditu, eta egungo 30 neurriko oinetako baten tamaina du; haur baten zapata da, beraz. Material organikoz eginga izan arren, meatzeko gatzetan bikain kon-

tserbatu da larruzko pieza eta, horri esker, besteak beste, garai hartan zapatak nola lotzen zituzten jakin ahal izan dute ikerlariek, nahiz eta lokarriak galdu, zuloak garbi ikusten direlako. Eta, gainera, garai hartan ere haurrek meatzetan lan egiten zutela baieztatzen dute. ●



MAÑARIAKO GRISA

1970eko hamarkada hasieran, Robert Smithson artistak bogan zegoen arte minimalista auzitan jarri eta artea paisaian eta naturan bertan egin zitekeelaren ideia zabaldu zuen. Hartara, sortze-ideia horri segika, lursailean prestakuntzak egiten hasi zen hainbat artista, beren proiektuak lekualdatzen, galerietatik, museoetatik eta hirietatik atera eta basamortuetara, arroiletara eta harrobietara eramanda. Horien artean zeuden Richard Long, Walter de Maria, Christo edo Michael Heizer. Paisaian edo naturan bertan egiten den esku hartze artistikoa *land art* gisa ezagutzen da artearen historian, obra iragankorrak dira, eta izugarriak dimentsio eta baliabideei dagokienez. Mañariako harrobi abandonatu batean, mugimendu horren ideiekin lerrokatzen den proiektua aurkitu dugu, Angurreta Arte Espazioa.

 JONE ALAITZ URIARTE  JOXE AMANTEGI

Azkenaldian askotan gertatzen zaidanez, Instagram bidez jakin dut Mañariako harrobi batean Tanadori Yamaguchi (Nagoya, 1970) artista japoniarraren esku hartze artistikoa inauguratu berri dutela. Aitzakia probestu eta goiz euri-tsu batean abiatu gara Bizkaiko txoko horretara. Oinez heldu gara, baso heze eta hostotsu bat igaro ondoren, Angurreta harrobia izan zen horretara. Gizonen lanak eta makinen haginkadek naturari berezkoa zaion haragia jan diete hamar-kada luzetan: lehen mendia zen horretan, hutsuneak sortuta; lehen osoa eta betea zegoen horretan, barnehutsak eta ausentziak bistaratuz. Gure inguruko bazterretan asko dira mendiari egin zaizkion ustiaketak, bai iraganean bai egun ere, garai modernoek dakartzaten zalantzazko azpiegitura izugarriei bide emateko. Erauzte horien aztarna dira, adibidez, gure paisaian aurki daitezkeen aurrealde

bertikal terrazatuak, plataforma horizontalak, kanoi artifizialak, hondakindegia, karobiak eta horien alboetan sortzen diren eraikin txikiak.

Mañariako Aldebaraieta auzoan dagoen Angurreta harrobitik, zehazki, *gris mañaria* edo Mañariako grisa izenez ezagutzen den harria ustiatzen zen, tonalitate arre-beltz-beltza eta zain zuriak zituen marmolezko kareharria. Antza, orain gutxi arte, material hori asko erabiltzen zen apaingarri gisa luxuzko etxebizitza eta jauregiak atontzeko, besteak beste, zokaloak eta zutabeak egiteko. 1970eko hamarkada arte egon zen aktibo harrobia eta behin ustiaketa-lanak bukatuta, meztzaritzako erauzketa-gune hori ahanzturan geratu zen, Victor Arrizabalaga eskultoreak bizi berria eman zion arte. Durangon bizi eta lan egiten duen artistak eta Yamaguchik orain hamabost urte ezagutu zuten elkar Leonen (Gaztela eta Leon) antolatu zen talde-erakusketa ba-

tean, eta ordutik mantendu duten eten-gabeko elkarrizketaren emaitza da gaur *Denboraren aztarna* izenburua daraman proiektuan batu dutena.

Tanadori Yamaguchi eskultoreak Kyotoko unibertsitatean arte ikasketak egin zituen eta 1998. urteaz geroztik Asturiasen bizi da. Hainbat galeria eta unibertsitatearekin harremanetan dago eta bere sorkuntzak han eta hemen erakutsi ditu. Harriari aplikatutako arteetan da aditua, harria da bere eskultura askoren lehengaia, eta horregatik jaso zuen harrobi batean esku hartze artistikoa egiteko gonbidapena. Angurreta harrobirako, *site specific* edo leku horretarako apropos egin duen lau eskulturez osatutako sorkuntza aurkeztu du. Harrobiko paisaia gris eta geometrikoan, aluminiozko forma poliedrikoak sortu ditu, eskala handiko arroken artean fusionatu eta berezko paisaian txertatzen direnak. Eskulturak, altzairuzko barne-egitura eta aluminioz-



ko azala dutenak, Arrizabalagaren tailerrean egin ditu eta ondoren arroka blokeen artean kokatu ditu; harrobiko pareta bertikal eta zuzenetatik ihes eginguten duten forma bihurriak dira.

Yamaguchiri lan hau egitea enkargatu ziotenean hiru baldintza jarri zizkionten: ezin zuen harri-blokerik mugitu; lanak harrobiaren historiarekin harremana izan beharko zuen; eta harrobiaren memoria bizirik mantendu beharko zuen. Hiru baldintza horiek beteta jaiotzen *Denboraren aztarna* proiektua. Artistak harri blokeen testura zimurtsua aluminiozko xaflatara eraman du, eta horretarako Arrizabalagaren estudioan xaflak harri baten kontra zanpatu ditu, harriaren testura material distiratsuan inprima zedin. Harrobiko harri-bloke pisutsuekin gertatzen ez den bezala, eta eskulturek lehen begirada batean irudi-



katzen dutenaren aurka, eskulturak ariak dira, hutsik baitaude barrutik; haragirik ez, kasu honetan dena da hezurra eta azala. Yamaguchik Angurretako goi partean kokatu duen poliedro –hiru, lau eta bost aldekoak– luze eta malkartsuak, parean dugun Urkiolako mendilorretik bereizten den Eskubaratz mendiko siluetari jarraitzen dio, bi plano bereizi dituen margolan baten antzera.

Mañariako paisaia harritsu horrek badu, bere baitan eta harrizko bloke handien berezko dispoizioari erreparratuz gero, edertasun propioa: espiral itxurako formak bistaratzen dira, konposaketa harmonikoak begizatzen dira eta espazio hutsek erakarpen-ahalmen handia daukate. Badago honetan guztian nagusitzen den ordena-atmosfera bat, lorategi zen bat izan zatekeenaren xarma daukana. Harri blokeetara gerturatzean ikusten dugu erauzte-aktibitatearen ondorioak harri bloke handien azalean zanpatuta. Bloke batzuek marra horizontal perfektuak dituzte, altzairuzko hari helikoidalaz zerratzeaz sortu diren barrurantz doazen haginkadak dira. Harriaren haragia bistara geratzen da, gris argiagoa duen barru-azala, zaina, erditik irekita. Eskua pasatzen diogu gainetik, zauri horren mina arindu ahalko bagenu bezala.

Oro har, Yamaguchiren praktika artistikoak inguratzen duen naturarekin eta paisaiarekin lotura zuzena izan ohi du. Kasu honetan bezalaxe, zeina polita den ikustea nola eguzkiak, hezetasunak edota euriak, piezei zuzenean eragiten dien, ederra da ikustea nola doazen pieza hauek transformatzen eta naturaren aztarnak eskulturaren azalean markatuta geratzen diren. Iraganean espazio natural honetan gizonak eragindako markak, orain, naturak gizonak egindako sorkuntzan betiereko arrastoa utziko du. Halaber, instalazio hori denboraren joan-etorriaren lekuko ere izango da eta harrobiko terrazetara lotuta dauden forma poliedriko kateatuak, abandonatuta zegoen espazioaren irakurketa berria egiteko abagunea eskainiko digu, denboraren iragankortasuna agerian utzita.

Ibilbide interesgarria diseinatu dute harrobitik, harri bloke handiak eta Yamaguchiren eskulturak zeharkatuz, oinez, modu errazean egin daitekeen paseoa da. Naturan kokatuta dagoen instalazio horrek, gainera, Urkiolako parajeetako bista paregabeak eskaintzen ditu. Zalantzarik gabe, zoko-natural honekin gozatzeko aitzakia paregabea da. ●

BESTE MUNDUKO MARGOLANAK

Hilma af Klint (Solna, 1862 – Danderyd, 1944) artista suediarra pintura abstraktuaren sortzailetzat jotzen da egun, baina Vasili Kandinskiren aurretik, bere obra abstraktua ezkutuan izan zen 1980ko hamarkadaren erdira arte. Milaka margolan, testu eta koaderno sekretupean gordeta izan ziren bi hamarkadetan, sortzaileak berak horrela aginduta. Hala,

kutsu naturalistako potretak eta paisaiak margotzen zituen bitartean, Hilmak pintura abstraktuaren estreinako urratsak egin zituen ilunpean. Obra horren xedea ikusiezina den oro moldatzea zen, kosmosean nor garen jakiteko asmoz. Finean, Hilmaren helburua bizitzaren misterioa argitzea zen, bizitza ulertuta bilakaera espiritual baten gisara.

JULEN AZPITARTE

Obra abstraktu horretan formatu handiko koadroak nabarmentzen dira, eta margolan handi horietan, elementu errepikatua ageri; tartean, zirkulu zentrokideak, obaloak eta espiralak. Gaiei dagokienean, aspektu metafisikoak nagusitzen dira: kosmosa bere osotasunean, munduaren sorrera eta dualtasunak (materia eta espiritua; femeninoa eta maskulinoa). Forma zirkularrek eta espiralek eboluzio humanoa sinbolizatzen dute, eta kolore horiak eta urdinak, berriz, gizona eta emakumea. Sinboloak beste dimentsio batzuetarako sarbideak dira.

Bere pinturak beti beltzez janzten zituen Hilmak munduko goi entitateen agindupean pintatzen zuen. Horretarako, *medium* gisa aritzen zen espiritismo saioetan, beste emakume artista batzuekin batera. Bilera espiritista horietan, gerora surrealisten sarri erabiliko zituzten teknikekin esperimentatu zuten; idazketa eta marrazketa automatikoa. 10 urteko ahizpa txikia hil zitzaionean piztu zitzaion ezkutuko zientzietatik zailtasuna. Hala, tradizio espiritistaren jarraitzaile sutsuak ziren hainbat lagun ezagutu ez ezik, zenbait talde espiritualetan parte hartu zuen, hala nola, Teosofian, Rosekreutz-en eta Antroposofian.

Elkarte teosofikoaren oinarritzko irakaskuntzaren arabera, erlijio guztiek “egia komun” bat dute, erlijio bakoitzaren esentzian dagoena. Hilma ere egia komun horren atzetik aritu zen, pintura eta espiritualtasuna uztartuta. Pintorearen hitzetan, “bizitza fartsa bihurtzen da egiarentzat balio ez badu”.

Hilma 1944. zendu zen, auto ezbehar baten ondorioz. Aurretik, baina, bere heriotza “sumatu” zuen, hainbat gauetan ezbeharra amestu baitzuen: basoko errepide batean auto istripua, orban beltz ba-

tek begirada estaltzen zion bitartean, eta bere eskuak zilar koloreko autoaren bolantetik irrist egiten zuten momentuan. 2024an, pintore suediarren heriotzaren 80. urteurrena izango da.

“BOSTAK”

Hilma txikitatik hasi zen margotzen, batez ere paisaiak, naturak liluratuta. Alabak artearekiko agertu zuen pasioaz jabetuta, gurasoek Stockholmeko Eskola Politeknikora bidali zuten. Urtebete beranduago, ahizpa txikia hil zitzaion gripeak jota, eta ondorioz, orduan bogan zegoen espiritismoarekiko jakinmina loratu zitzaion. Era berean, Madame Blavatsky Elkarte Teosofikoaren sortzaileetako baten testuak irakurtzen hasi zen grinatsu, eta Stockholmeko Elkarte Teosofikoan parte hartzen.

Bere karrera artistikoarekin jarraitzeko asmoz, 1882an Arte Ederren



Hilma af Klint-en erakusketa bat Billoko Guggenheimen, 2018an. / GUGGENHEIM MUSEOA



Hilma af Klint-en erretratua. / EGILE EZEZAGUNA

Akademia Errealean ikasi zuen, eta erakunde horretan ezagutu zuen bere ibilbidean funtsezkoa izango zen beste emakume artista bat: Anna Cassel. Behin ikasketak amaituta, Annak eta Hilmak beren kezka artistikoak eta espiritualak beste maila batera eramatea deliberatu zuten. Hala, 1887an, *De Fem* ("Bostak") taldea sortu zuten beste hiru emakume artista hauekin batera: Cornelia Cederberg, Sigrid Herman eta Mathilda Kilsson.

Taldea ostiralero biltzen zen "beste munduko izaki espiritualekin kontaktatzeko" asmoz. Saio horietan marrazketa eta idazketa automatikoarekin esperimentatu zuten. Bada, automatismo horiek eragindako ohar eta zirriborroak funtsezkoak izan ziren Hilma-ren lan artistikoan, ezkutuko mezuak margolan bihurtzen baitzituen.

Mezuok goi entitate espiritualek bidaltzen zizkieten, eta beste munduko izaki horien izenak ere jaso zituzten beren kaieretan: Clement, Gregor, Anandas, Amaliel eta Amalius. Maisuon mezua argia zen: saioetan sortzen zituzten marrazkiak gorde behar zituzten. "(...) Gureak koadro hetero uhindunak dira, eta gorde behar ditugu, egunen batean mandatu zintzo bat ikasi ahalko dutenen begien eta belarrien zain baitaude".

ARTE ESPIRITUALA

Batzar espiritista horiek 1907ra arte iraun zuten, eta bertan bildutako ohar, marrazki eta testuak ezinbestekoak izan ziren Hilma-ren lan abstraktua gauzatzeko, saio espiritista horietan ikasitako automatismoen bidez margotzen baitzuen, pintore medium baten gisara. Artistaren arabera, "sasoi honetako obrak nigandik etorri ziren, aurretik egindako marrazkirik gabe".

Garai horretako obrarik azpimarragarriena *Tenplurako margolanak* (1906) da: bere gidari Amalieli zuzendutako Taulei buruzkoa da, zeina 193 koadroz osatua dagoen. Hilma-ren aburuz, *medium* aritu zen obra horretan, goitik hitz egiten zion Amaliel maisuaren agindupean. Lan monumentala, berritzailea eta aparta da, eta serietan eta taldetan katalogatu zuten. Hainbat gai jorratzen dira: mundu materialaren garapena eta agerpena, materiaren sorrera espiritutik azalduta, giza eboluzioaren etapak, materiaren eta gizakiaren dualtasuna, eta abar.

Artelan erraldoi hori sekretupean gorde zuen artistak. Hala, jainkotegirako koadroak ikusi zituen bakanetakoa bat Norvegiako Elkarte Teosofikoaren sortzaile Rudolf Steiner izan zen, 1920an, Hilma-ri ama hil zitzaion urtean. Steinerrek eragin handia izan

zuen sortzailearengan, eta margolanak 50 urtez gordetzeko eskatu zion, mundua ez baitzegoen prestatuta lan haiek ikusteko -azkenean 20 urte baino ez ziren izan-. Horrekin batera, Hilma-ren medium gaitasuna zalantzan jarri zuen, eta ondorioz, depresioan hondoratu zen artista. Hamarkada bat inguru eman zuen margotu barik.

Hilma ez zen ezkondu, eta ez zuen seme-alabarik izan. 1944an hil zen, 82 urte zituela. Bere iloba Erik af Klint izan zen 1.000 margolanen eta 100 koadroren ondarea jaso zuena. Izekoren esanak bete zituen, eta obra osoa gorde zuen 20 urtez estalpe batean, 1986an ezagutzera eman zuen arte, Los Angeles (AEB) hiriko Artearen Museoan museoan egindako erakusketaren bitartez, *The Spiritual in Art: Abstract Painting 1890-1985* ("Espiritualtasuna artean: pintura abstraktua 1890-1985").

XX. mendea gainditu duen emakume pintore mediumen tradizioaren ordezkaria izan zen Hilma af Klint, besteak beste, Josefá Tolrà katalanarekin, Marjorie Cameron estatubatuarrekin eta Madge Gill britainiarrekin batera. Emakume horiek espiritualtasunaz baliatu ziren beren artea gauzatzeko, baina, era berean, espiritualtasun hori jarrera bilakatu zuten beren bizitzei aurre egiteko, duintasunez. ●



LIBURUA

Baserriaz eta galeraz



EREIN

BASERRIA (H)UZ(S)TEN

OSKAR GAZTELU

EREIN, 2023

MADDI GALDOS ARETA

Hitz gutxi batzuekin kontaezina kontatzeko aukera ematen omen dio poesiak Oskar Gazteluri (Larrabetzu, 1964). Orain arte saiakeragintzan aritua izan arren, berriki argitaratu du larrabetzuarrak bere lehen poema-bilduma. Ernestina de Champourcín 32. Poesia Saria irabazita plazaratu du *Baserria (h)uz(s)ten* (Erein, 2023) liburua, 22 poema eta hamaika hausnarketa biltzen dituena. Izenburuak berak adierazi legez bilduman gailentzen den irudia utzitako eta hustutako baserriarena da: baserria, ordea, etxe landatar soil izatetik harata-go doa lerrootan.


Galbidean diren bizimodu eta usadioei, belaunaldi helduenarekin batera desagertzear den ezagutzari, bizitza eta heriotzaren arteko harremanari, natu-

ran diren askotariko zikloi, gauzek eta espazioek gordetzen duten memoriari eta galerak dakartzan bakardade eta hutsminari begira jartzen gaitu Gazteluk ondutako nolabaiteko paisaia poetikoak, lorategiz, euri samurrez eta aspaldiko altxorrez betetako kutxaz edertutakoak: "Noizean behin, soseguz, / neure barruko / baserri txikira sartzen naiz, / neure haurtzaroko baserrira. / Ezin dut esan zoriontsu ginenez, / baina gogoko dut / leku berean urteen oihartzuna entzutea (...)".

Baina sozializat har genitzakeen hausnarketa gaien iturri izateaz gain, ahots poetiko pertsonala elikatzen duen jaiotetxea ere bada baserria Gaztelurentzat. Zentzu horretan, bereziki azpimarragarria da amaren heriotzak eta horren os-

teko doluak bilduman duten garrantzia. Ama hizpide duten edota amari zuzendutako poemek kutsu hunkigarriak blaitzen dute liburua: absentziak presentziak baino leku gehiago hartzen ei baitu espazioan. *Apirila* poema dugu, tartean, aipatutakoaren adierazle: "'Nik ez dakit hemen egongo naizen, baina udaberria / etorriko da', esaten zuen. / Udaberria hemen dago. / Loreak haren zain, / ea belar txarretatik norbaitek libratzen dituen. / Aurten amak ez du nire hori hartuko".


Kasu batzuetan gogoeta gaien eta poetikotasunaren arteko oreka fintzeke dela esan genezakeen arren, esateko latz direnak adierazteko moduen bilaketa doia dira poemok: baserriak utzi arren beheko suek piztuta iraun dezaten saiakera moduko bat. ●



MUSIKA

Chihuahua, kanitxeak eta klase borroka

TWITTER GALLERY SESSIONS



XALBA RAMIREZ

Chill Mafia eztanda bat izan zen. Tinta asko gastatu zen prentsan fenomeno ulertzeko, edota ikuskizunean nork bere aletxo gehitzeko, klik errezak zirelakoan. Leherketa zirudiena baretu da, eta orain jarraitzen dugu betiko moldeetan, taldeengandik musika soilik esperota.

Arretarik jarriko ez zaion arren, ordea, dena aldatu zuten Arrotxapea eta Mendilorririko gazteek. Garrantzitsuena, euskal gazteek izan zuten konexioa gairiarekin; azkenean norbait ari zelako belaunalditik belaunaldira kantuan, helduek ulertuko ez zuten kodean.

Zurrumbilo hartan, Chill Mafiaren atzean, edota albo baten, zebilen Ben Yart mendilorrirarra. Lerro hauetan hitz egin genuen berari buruz, eta nola sampleatu zuen Maddi Oihenarten *Ikusiko dira berriz* kanta zoragarria *Gure kabia* ederrean. Orduetik, han hemenka kolaborazioak egiten azaldu da, Espainiako traparen ikur nagusiekin batera *Barriobajero* hit-a kaleratuz, adibidez. Bere *mixtape* propioa atera zuen 2021ean: *Pitxu en casa*.

Orain, bere lehen lan luzea kaleratu du: *Ceros*. Gallery session deitzen den zuzeneko eskaini zuen orain hilabete gutxi izen berarekin, eta izandako oihartzunaren ondorioz, hortik zehar grabatuta zituen kanta bildu eta disko gisa kaleratzeko beharra izan zuen. Izan ere Youtubeko bideo horrek milaka ikustaldi eta erreakzio izan zituen.

Zerk egiten du berezi kanta hori? Ikustea besterik ez dago. Kasik ulertzen ez den istorio bat kontatzen du chihuahua eta kanitxe baten inguruan. Entzunaldi bakoitzean zerbait berria ulertzen duzu, eta lortzen duzunean letra deszifratzea konturatzen zara atzean ez dagoela itxura huts bat: chihuahua eta kanitxeak, langileria eta burgesia sinbolizatzen duten metaforak dira. Klase gizartearen azterketa bat da kanta hau eta kasik diskoa osorik ere bai.

Ez gara jarriko Mark Fisher estiloan, hemendik ondorio politiko eta teoriko sofistikatua ateratzen. Diskoak asko hitz egiten du pobreziaz, diruaz, arazo



CEROS BEN YART

OSO POLITA, 2023

ekonomikoez, eta hori dena dator auzo bateko gaztea izatearen esperientziari lotuta, drogei lotuta eta kapitalismoaren egiturazko arazoei lotuta. Interesgarria hemen ez da analisia, baizik eta nondik egiten duen.

Ben Yarten lirika poesia da: lehendik entzun ez duzun poesia, esango nuke. Ez dut ezagutu artistarik estrofa batetik bestera gaiez aldatzeko gaitasun horrekin. Elkarrizketa batean entzun nion, bere erreferenteak zeintzuk diren galdetuta, berak musikariez gain, kaleko jendea zuela gogoan: kale saltzaile batek egiten dituen oihuak, bere produktua saltzeko. Hor topatzen du inspirazioa.

Egungo musikan, ohikoa da estribilloari garrantzia ematea. Ben Yarten kasuan alderantziz da. Gero eta estribillo gutxiago, hobeto: esateko gehiago du eta zutabeetan. Nire gogokoena: *Uno, Cero a la derecha* eta *Feliz*. Eroena: *Día de paga*. Eman diezaiegun aukera bat esateko molde berriei. Euskarak ere ikasi dezan. ●



Zuloa ez da fisikoa

AINHOA MARIEZKURRENA ETXABE

Esatzen da izena duenak izana duela eta zer dakigu baginaz apenas ahoskatzen ez badugu. Ahopeka, lotsati edota ezjakintasunetik begiratu ohi diogu, eta begiak itxita, gainera. *Baginaren bakarrizketak* obrak hiru aktore igo ditu eszenatikora sekretua hausteko asmoz, edukitzearen eta iza-tearen aldea nabarmenduta.

Zera hori, hor azpikoa. Badakizu, neska: *asuntua*, larrosa, meloia, poxpolina, potorroa, jaiotza, motxina, zuloa... Pitilinarekin kontrakoa. Izendapen gutxi batzuk baino ez dira hauek, zalantzarik gabe antzezlanak duen une onenatariko batean oihukatzen direnak, bagina hitzaren tabuari jarritako ordezkari guztien manifestazioa egiten duten unean, ehunka baitira izendaezina den izena izendatzeko ahaleginak.

Adin, jaioterri eta baldintza sozial desberdinetako 200 emakumeri egindako elkarrizketa du oinarrian Eve Ensleren jatorrizko liburuak, obra hau egiteko abiapuntuak, alegia. 1996an antzeztu

BAGINAREN BAKARRIZKETAK

EGILEA: Eve Ensler / **ITZULPENA:** Inma Infiesta

ZUZENDARIA: Begoña Bilbao / **ZUZ. LAGUNTZAILEA:** Martin Agirre

AKTOREAK: Ainhoa Etxebarria, Itziar Urretabizkaia, Intza Alkain

KONPAINIA: Txalo Produzioak

NON-NOIZ: Donostiako Antzoki Zaharrean, abuztuaren 17an

zen lehengo aldiz, ingelesez, Ameriketako Estatu Batuetan. Euskaraz eta Euskal Herrira 2011n ekarri zuten Aitziber Garmendia eta Ainhoa Garai aktoreek. 50 hizkuntzatarara itzuli eta 140 herrialde-tara zabaldu da dagoeneko. Begoña Bilbao zuzendariak berriro mahaigaineratu nahi izan du aurten. Hiru ahots oholtzan, gainontzekoen hotsak txukuntzen, oraindik gaurkotasunez ulertzen dugun testuinguruan eta apunte berriekin: transexualitatearena, esaterako.

Umorea nonahi darabilte, baita gure buruaz barre egiteko eta naturala den zerbait ezkatzearen absurdoa publiko egiteko gogoia ere. Kontatzeko modukoak diren testigantzak intimitatetik ateratzekoak direla frogatu dute, publikoak lehen pertsonan ulertu baititu bestearen negarrak, batez ere, bagina dugunok. Motxinaren misterioak sortu dituen angustia, trauma, sentsazio, poz eta esperientziak hainbat esketxetan interpretatu dituzte modu dinamiko eta


dibertigarrian, pertsonaien karakterizazio berezirik bilatu eta eszenografian galdu gabe, eta gorputzen adierazpena azpimarratuta. Soinu banda etengabea izan da, egunetan gordetzen den horietakoa, intzirien doinuek eta publikoaren algar nekaezinek sortutakoa.

Bizipenak, ordea, ez dira denak gozoak eta hori ere sentituko du ikusleak. Erreproduktzioaz gain, hilekoaz, bortxaketaz, minaz, plazerez, eiakulazioaz, orgasmoaz, orgasmorik ezaz eta jaiotzaz hitz egiten dute, besteak beste, negarra eragiteraino, batzuetan gordetako malkoak barre egitean ere ateratzen baitira. Horretarako ere badira antzokiak, jendeak badaki eta bilatu egiten du, gutxi izan baitziren libre geratutako eserlekuak.

Obra hau, beraz, hitz egiten emakume haien omenez eta isilik zein berri-itsu gaudenon eta datozenen mesedetan egindakoa da. Emakumearen sexualizazioak ikuslegoa plazerez lehertzeak asko poztzen nau. ●



Gurutzegrama



EZKER-ESKUIN:

1. Dirudienez. / Euskal jeinua. **2.** Ilun dagoen egunaren zatia. / Zuhaitzetatik eroritako hostoen multzo. **3.** Begitartea, musua. **4.** Maniokatik ateratzen den fekula zuri. **5.** Lagatze. / Zein pertsonarentzat. **6.** Arraza, kasta. / Idaztera behartu. **7.** Jausiko. / Zeruari dagokiona. **8.** Jauntxo. / Bere artean.

GOITIK BEHERA:

1. Antzinateko Turkian, sustanaren gorteko buruzagiak. / Euskaltegi sarea. **2.** Nauka. / Urratu aditzaren infinitibo. **3. Enkarterriko herria (argazkian).** **4.** Zapatak egiten dituen. **5.** Mugatutako denbora-bitarte. / Ikusi (laburdura). **6.** Eguneroko jangai. / Aldapa. **7.** Eri egon ondoren, suspertzen ematen den denbora. **8.** Kalkulatzeko taula. **9.** Infusio bizigarri. / Joxean ..., euskal poeta gipuzkoarra. **10.** Xakeko sailkapen sistema. / Deus. **11.** Bare, lasai. **12.** Truke. **13.** Puska. **14.** Barazki hostotsuak. **15.** Su-arma batek jaurtigaia aurtikitzea.

Sudokua

ERRAZA



1	3			2		7		6
7			4			9	3	1
6		9	7		1		5	2
3	9	4		1			6	8
				6		2		
2			9		8			
5			6	9	3	1	8	4
	8	3					2	9
	1	6			2	3	7	5

ZAILA

						8	6	1
			9					5
		7				3		
					2			4
3					9			8
8	7		1			5		
		1	6	7		9	5	3
		4						
	9					8	4	2

Esaera zaharra

KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT AGERTUKO ZAIZU.



Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN HIZKI BERAK DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA BESTELAKO HURRENKERAN.

- Ohola
- Aintzira
- Errua
- Mordoak
- Agian, akaso
- Abade
- Garaua, bihia
- Edo
- Itsusi
- Haurra, umea
- ... egin, belarra moztu
- Itsas ur
- Laikoa

TAULA
LEGOA

EBAZPENAK

BALANTZA DUEN ALDERA ERORTZEN DA ARBOLA.

ATSOTZITZA

7	9	6	3	5	8	4	1	2
5	3	4	2	7	1	6	8	7
2	8	1	6	7	4	9	5	3
8	7	2	1	4	3	5	9	6
3	4	5	7	6	9	1	2	8
1	6	9	5	8	2	7	3	4
6	2	7	8	1	5	3	4	9
4	1	8	9	3	6	2	7	5
9	5	3	4	2	7	8	6	1

ZAILA

9	1	6	8	4	2	3	7	5
4	8	3	1	7	5	6	2	9
5	7	2	6	9	3	1	8	4
2	6	7	9	5	8	4	1	3
8	5	1	3	6	4	2	9	7
3	9	4	2	1	7	5	6	8
6	4	9	7	3	1	8	5	2
7	2	5	4	8	6	9	3	1
1	3	8	5	2	9	7	4	6

ANAGRAMAK

ERRAZA

- NARE, 12. TRUK, 13. ZATI, 14. AZAK, 15. TIRO.
 ERIONDO, 8. ABAKOA, 9. TE, ARTZE, 10. ELO, EZER, 11. TURTIOZ, 4. ZAPATARI, 5. EPE, IK, 6. OGI, IKE, 7. **GOITIK BEHERA:** 1. AGAK, AER, 2. NAU, URRU, 3. BEREKIKO. **GOITIK BEHERA:** 1. ANTZA, EATE, 2. GAUA, ORBEL, 3. AURPEGIA, 4. TAPIOKA, 5. UZTE, NORENTZAT, 6. ARIA, IDATZARAZI, 7. ERORIKO, ZERUTAR, 8. KAZIKE, 9. AURPEGIA, 4. TAPIOKA, 5. UZTE, NORENTZAT, 6. ARIA, IDATZARAZI, 7. ERORIKO, ZERUTAR, 8. KAZIKE.

Uxue Bereziartua Lonbide

@P.KITASTUDIO



PAKITA ETA PANTXIKA

“Nire bi amonak gogoan hartu nahi izan nituen. Andrekale karrikan gaude Hernanin, eta Pakita eta Pantxika nire bi amonak gogoan jarri nuen izena. Politia iruditzeaz gain, borobila ere iruditu zitzaidan hala egitea. Nire ilustrazio lanek ere emakumea izan ohi dute oinarri, beraz, ezin zen bestela izan”. Irria ahoan duela kontatzen du Pakita Studioren bihotza nondik eta nola sortu zen. Inguruan duen sareari esker jarduten duela kontziente izanik, erronkak hartu egin behar direla irizten dio.

“Bazterreko identitateak ilustratuta, ahalik eta jende gehiena ordezkaturik sentitzea nahi dut”

Feminismoa du oinarri Uxue Bereziartua Lonbidek (Hernani, 1996). Serigrafia, marrazketa eta zeramikaren bidez, besteak beste, bazterreko gorputzak eta pertsona horien bizipenak irudikatzen ditu. Oraindik ere, zoritxarrez, begi bitxiz begiratzen zaie gorputz lodi edota iletsuei. Sortzaile gisa, atzerrian bidea urratzearen aldeko apustua egin bezain pronto, enkarguak jasotzen hasi zen Euskal Herriatik. Osasun izurritea lehertu zen gero, eta etxera itzuli zen, Bartzelona utzita. Orain, Pakita Studio da bere etxea eta sormen habia, Hernanin.

 **AITZIBER ZAPIRAIN ETXANIZ**  **DANI BLANCO / ARGIA CC BY SA**

Zer da Pakita Studio?

Euskal emakume sortzaileen denda da oro har, baina atzerriko pare bat lagun ere baditugu. Asko lagunak dira, batzuk herrikoak, eta batzuk sare sozialen bidez ezagutu ditut. Nire ibilbidean ezagutu ditudan proiektuei espazioa eskaini nahi izan diet. Azken batean filtroa nik jartzen dut, nor ekarri eta zenbat espazio eskaini. Zoragarria zait horrela lan egin ahal izatea.

Denda da, beraz?

Ez da eguneroko produktuak erosteko denda bat. Detailtxoak saltzen ditugu, gauza bereziak. Baina horrez gain, tailer espazio bat ere bada, sortzaileon gunea.

Zenbait gauzek prezio altua dute, hala da, baina sortzaileoi asko kostatzen zaigu geure lanei prezioa jarzea. Gure lana baloratzen ere ikasi

behar dugu ordea, eta aurrera egiteko ezinbestekoa da horrela egitea. Gainontzean ez ginateke sekula profesional gisa arituko.

Moda azkarrak zenbaterainoko kaltea egiten du?

Neu ere moda azkarraren kontsumitzailea izan naiz urte luzez. Orain, ordea, beste zerbait baloratzen ikasi dut. Moda azkarra, izenak berak dioen bezala, etorri bezala joan egiten da. Oso iraupen motzekoa da. Artisauen lanak, aldiz, oinarri onak ditu, fede onez osatuta daude. Moda azkarraren atzean lan baldintza txarrak daude, esplotazioa ere bai zenbait kasutan.

Sarri, jendeari kosta egiten zaio ilustrazio lan bat edo jertse serigrafiatu bat pittin bat gehiago ordaintzea. “Garestia da”, esan izan didate. Baina jende horrek gero ez du ino-



"Ilustratzaile, diseinatzaile (naiz)... Tentakulu askoko proiektu orokorra da Pakita Studio'.

lako arazorik diru gehiago xahutzeko moda azkarreko dendatan. Nahiko nuke jende guztiarentzat irisgarria izan, baina nik ere jan behar dut.

Nola hasi zinen Pakita Studiorekin?

Aurrez etxean aritzen nintzen lanean, ilustrazioak badu aukera hori, baina era serioagoan serigrafiarekin hasi nintzenean arazoak ikusi nituen gurasoen etxean horrela segitzeko. Hernaniko Udalak lokal hutsak zabaltzeko laguntzak ematearen aldeko apustua egin zuen, eta nire unea zela pentsatu nuen. Abuztua zen, eta irailean jada lanean hasi nintzen lokala atontzen. Bi urterako epea zuen laguntzak, oraintsu amaitu zait eta aurrera egiteko aukera izan dut. Sare lan handia izan dut inguruan; sarerik gabe ezin izango nuen hemen egon. Esan ohi da bost urte behar dituela halako proiektu batek egonkorra den ala ez jakiteko; beraz, aurrera egitea erabaki dugu.

Nolako harrera izan du proiektuak?

Irekiera ofiziala abenduan egin genuen, eta uste dut hilabete paregabea dela horrelakoetarako, urteko gastu guztiak

konpentsatzeko parada baita. Itzela izan zen hasiera, eta gerora oso gorabeheratsua izan da, baina hibridotasunak diru-sarrerak dibertsifikatzeko aukera eman dit. Ilustratzaile, diseinatzaile... Tentakulu askoko proiektu orokorra da.

Askotariko espazioa.

Estudio orokor bat da, ez denda arrunta. Atzerrian ohitura gehiago daukate horrelako espazioak izateko. Hemen ezohikoa zaigu, arrotza.

Zure lanak badu aldarrikapenetik?

Feminismoa dut oinarrian, baita lanean ere. Hasi nintzenean ohartu nintzen asko ginela emakumezkoak ilustratzen ari ginenak; ni neu orain arte erakutsi ez diren gorputzak erakusten saiatzen naiz, hau da, nire inguruko erreferenteen errealitateak irudikatzen. Jende lodia, iletsua... Bazterreko identitate direnak. Ahalik eta jende gehiena ordezkaturik sentitzea bilatzen dut. Batzuetan harritu egiten naiz, "honen antza du" esaten baitidate zenbaitetan, eta ez da nahita egindako zerbait. Ez dut inor zehatza gogoan izaten sortzen ari naizenean.

Bazterrekoa erdigunera eramaten ari zaretenak asko zarete.

Errealitate bat da eta ohitu egin behar dugu, munduaren parte garelako. Nik gorputz lodia dut, eta zenbait gunetan babestua sentitzen naiz, baina leku askotan ez oraindik; zapaldua sentitzen naiz. Mundu guztia berdin irudikatzen dugu, identitate berdinak izango balira bezala. Aniztasun handia dago gizartean, eta hori egin behar dugu, bazterrekoa aldarrikatu. Beharrezkoa da nire ustez.

Dinagu kolektiboan ere bazabiltza azokaz azoka.

Bai, eta asko eskertzen dut. Azokak lan asko eskatzen du eta jendeak badaki nora doan, zertara eta norekin eginen duen topo. Beraz, bezeroak beste aldean dagoen langile eta lana zaintzen ditu. Espazio babestuak dira guretzat. 'Nomadak gaitun' azoka urtean bi aldiz egiten saiatzen gara. Oso nekeza da, baina azkenean merezi du. Askok gara izena ematen dugunak, eta denontzako lekurik ez da egoten beti. Dendak, ordea, badu bere xarma. Anekdotak asko bizitzen ari naiz etortzen den jendearekin. Jende asko ezagutzen ari naiz, Hernanitik kanpokoa ere bai. ●

Irailaren 8koak

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Baina has gaitezen biharamunetik: hura bai zela konpainia, Txingudiko Zerbitzuetako uniforme fosforitoak soinean, banderarik gabe, txalorik gabe, bibarik gabe, batzuek patrimonializatzen duten “sentimendu” hori gabe. Beraz, irribarrerik gabe, lerrorik zaindu gabe, musikarik gabe, baina laneko tresnak eskuan, zuzen-zuzen norbaitek derrigorrez egin behar duen hori egitera, irailaren 9 batez Hondarribian beste inoren eskurik aurkitzen ez duen beharrera. Alegia, alarde diskriminatzaileak erabiltzen dituen zaldientzat frontoi batean inprobisatzen duten korta garbitzera. Aterako zituzten palada batzuk zaldi-kaka. “Zerbait usteldurik dago Hondarribiko herrian”, esango luke *Hamlet*-eko Marzelok, sudurra han jarriko balu.

Eszenak pare bat burutazio katearazten ditu: 1) ahobetekada inportanteak dauzkagula festen izaera eraldatzaileaz hitz egitean, baina gero festen biharamuna dator, eta hori iraultzeak ez du grina handirik pizten oraingoz; eta hortaz, uzten dugun kaka pila –metaforikoa ala literala– beti berdinek garbitu behar dute. Eta 2) “alarde parekide eta publikoa” entzuten duenean limoi bat azal eta guzti irentsi osteko imintzioa formatzen duen jendeak, kurioski, ederki aprobetxatzen ditu baliabide publikoak haien desfile pribatuak utzitako kaka pila –kasu honetan oso literala– pixka bat txukundu behar denean. “Boluntariuak, ez jornaleruak!”, oihu egingo luke haietakoren baten asaba karlistak, baina arbasoen kontu guztiak ez zaizkigu berdin interesatzen.

Aurreko eguneko historia, istorio eta story guztietatik atera dudana konklusio guztiz pertsonala berriz, zera da: kei-



nuen alardea izan da 2023koa. Lehen aldiz Hondarribiko alkate batek –Igor Enparan, Abotsanitz plataformakoa– Jaizkibeli harrera egin dio. Lehen aldiz *idem*, EAJko Gipuzkoako ahaldun nagusi batek –Eider Mendoza–. Eta abar. Keinuak. Alegia, erabaki politikoaren negozioan dagoen dibisarik merkeena. Hobe dira ezer ez baino, noski; baina klaro, ia hiru hamarkadaz egon da gordeta horrelako gauzak ospatzeko xanpaina eta honezkeroko kortxo zaporea izango du.

Keinuak merkeak dira, beraz. Eta horregatik, jende askoren eskuetan daude. Eta gauza ugari adierazteko erabil daitezke, ez derrigorrez denak norabide berean. Hor daukazu enpresa berekoak izanda elkarren antagonikoak diren keinu-inbertsioak egin dituzten hautetsien kasu miresgarria: Mendoza Jaizkibeleko kideei begi-kliskak egiten ari zen bitartean, azken hauteskundeetan herrian

EAJren koloreak defendatu zituen alkategaia falta zuen alboan, alarde diskriminatzailea bakarrik ikusiko zuela argi adierazia baitzuen. Hortik ondorioztatzen da, keinuen alarde hau, agian, askotariko bezeroak fidelizatzeko marketin kanpaina ere izan dela: *pack* berri gisa ahaldun nagusia eskaintzen dizu orain alderdiak, zu alarde baztertzailean atera arren, emakumeen parte hartzea ondo iruditzen zaizunez; eta desfile bera azken hatsa eman arte defendatu beharreko gotorleku gisa bizi baduzu berriz, hor daukazu udaleko eskifaia jeltzalea, betiko –ups!– produktua eskaintzen.

2023koa, beraz, diferentea bai, izan da. “Historikoa” bezalako hitzak, ordea, hobe 2024an kontua behingoz soluzionatzen denerako uztea, nik uste. Hitzak urriak baitira, gastatu egiten dira, eta ez da komeni keinuak bezain erraz zirkulazioan jartzea. ●

inor ez da ilegala

jantziak salgai jarri nahi dituzu?



Euskal Herri osoan zehar sarea antolatzen ari gara

komertzial@argia.eus 679 81 73 54

ÑO!

KOMIKIAREN ERAKUSKETA

IRAILAK 28 - URRIAK 27



IREKIERA EKITALDIA:

IRAILAK 28, 18:00

 **Hernaniko Kulturarteko Plaza Feministan**
Eli Pagola, Maitane Gartzandia eta Miren Artetxe egileekin

 **ARGIA**

KULTURARTEKO
plaza
FEMINISTA